

AIARALDEA *hemen*



KIROLA:
Aingeru Olabarrieta
aiararra Athletic Clubeko
filialeko jokalaria 26 or.

GARAZI ABRISKETA:
“Gure alaba hilik jaio zen, baina familiaren
aitortza jaso zuen eta hori garrantzitsua
izan da zauriak sendatzeko” 8-11 or.



Lehen urratsa trans erresistentzia kutxa sortzera bidean

grafik.eus

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43



**KALITATEZKO
PRODUKTU
KORPORATIBOAK**

Zure markaren komunikazio
eraginkorrerako behar dituzun
kalitatezko produktuak
diseinatu eta ekoizten ditugu.

herriz herri

Laudio



“Berbots Euskaltegian bigarren familia sortu dugu”

BEGO MACIAS ETA ASIER AMONDO AEK-KO EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK DIRA ETA EGUNGO EGOITZAREN 25. URTEURRENARI BURUZ MINTZATU DIRA.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

25 urte bete du Euskaltegiak, ospatzeko asmoa duzue?

Asier Amondo: Zerbait egiteko asmoa badaukagu. Gabonak bitartean ekitalditxo bat eta gero udaberri amaieran edo udan zerbait ere. Tartean Korrika badaukagunez, zertzelada ugari falta dira. Saiatuko gara dena lotzen; urteurrena eta Korrika.

Bego Macias: Bai, ospatu baino, oroitaraziko dugu.

Nola mamitu zen egungo Euskaltegiako proiektua?

A.A.: Gu Ruperto Urkijo kaletik gentozen. 1992-1993 ikasturtean han ireki genuen Euskaltegia, Udalak AEK bota zuelako. Lehen udal euskaltegia eta AEK elkarrekin zeuden. Horren ondorioz, Ruperto Urkijo kalean ireki genuen, baina bost urteren ondoren txiki geratzen zitzaigun. Beste lokal baten bila hasi ginen eta hau topatu genuen. Ecocentro denda zen bere garaian eta AEKk erdia erosi zuen. 1998an zabaldu zen eta urte horretan uztailean ikastaro trinkoak hemen eskaini genituen.

Euskara eskolak emateaz gain, Berbalagun ekimena sustatu dugu, normalkuntza planak ere osatu ditugu, Korrika bi urterik behin antolatzen dugu... Euskararen arlo guztietan gure aztarna utzi nahi dugu.

Zein da lokalak AEKri eta herriari egin dien ekarpena?

A.A.: Euskaltegiak ateak irekita egon dira beti euskalgintzak edozein bilera edo ekimen egin nahi izan duenean. Eskatzen genuen baldintza bakarra zen euskaraz aritzea. Bertso Eskola ere hemen egon zen hasieran. Basalarrina ere hamaika aldiz bildu da, Euskaraldia ere elkartu da...

B.M.: Dantza taldeak ere asteburuetan egon dira hemen entseguak egiten. Ateak beti daude irekirik. Herrigunean dago eta kokapena ez da txarra. Aurreko lokala baino handiagoa da eta hasierako ikasle kopuruarekin aurreko egoitza txiki geratzen zen, zorionez. Euskalduntze eztanda hori apur bat jaitzi da, baina lekua egokiagoa da.

A.A.: Hemendik jende ugari atera da euskaraz mintzatzeko eta egun euskaraz bizi da. Batzuk gure irakasle bilakatu dira. Ibilbide luzea daukagu eta guk euskaldun aktiboak nahi ditugu, euskaraz arituko direnak.

Nola eraldatu da AEK bera 25 urtetan?

B.M.: Berez, metodologia ez dugu asko aldatu. Mintzaktikan oinarritzen gara neurri handi batean, euskalduntzea lortzeko. Gainera, ikasleen tipologia ere aldatu da, tituluen beharragatik.

A.A.: Metodologian aldaketa ez da handia izan, baina bai baliabideetan. Irakasleek zein ikasleek duela 25 urte

pentsaezinak ziren bitartekoak dituzte. Autoikaskuntza tresnak, pantaila bereziak, ordenagailuak... Horrek errazten du ikaskuntza prozesua.

Zein da Berbots Euskaltegiaren erronka?

A.A.: Tamalez, uste dut gauzak ez direla asko aldatu eta erronka bera dela. Laudion badago jende asko euskaraz ez dakiena eta euskaraz bizi ez dena. Erronka bertsua da: jendea euskaraz mintzatzeko, euskarara hurbiltzea... AEKren azken helburua desagertzea da, behin Euskal Herria euskaldunduta, baina momentuz ez dirudi hori berehala izango denik. Zentzu horretan, gure xedea da jendeak euskaraz egitea, euskaldun aktiboak izatea eta leku guztietan euskaraz mintzatzeko aukera izatea, dendan, kiroldegian, bankuan...

B.M.: Bide horretan erakundeen babesa handitu behar dugu. Guk doakotasunaren aldeko apustua egiten dugu, baina babesa behar dugu. Gure prezioak garestiagoak dira, eta jende guztiak ezin du ordaindu. Udal beken sistema dago, baina ea aldatzerik dagoen.

A.A.: Aldarrikatzen duguna da nork bere hizkuntza ikasteagatik ordaindu behar ez izatea. Horretarako erakundeen ardura badago, doakoa izan dadin euskara ikastea.

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian ikusgai.

Laudio

Latorron planteatutako kokalekuan eraikiko da anbulatorio berria



Hasieratik planteatutako kokalekuan eraikiko da anbulatorio berria. Eusko Jaurlaritzak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Osakidetzak Laudion eraikiko duen anbulatorioaren kokapenaren afera itxiztat eman du Udalak. Hala jakinarazi dute Udal Gobernuako ki-deek (EH Bildu eta Omnia) gaia azaltzeko eskainitako prentsaurrekoan. Jakinarazi dute obra lizentzia onartu egin dutela, horretarako "legezko baldintza guztiak" betetzen dituelako. Hala ere, gogorarazi dute ez daudela ados aurreko legealdian kokapena zehazteko erabilitako prozedurarekin. "Izan ere, ez zen herritarren parte hartzea bideratzeko prozesurik sustatu, eta presazko erabaki batean oinarrituta, ez ziren irisgarritasun edo bestelako irizpideak behar bezala kontuan hartu".

Obren lizentzia aurrera doan arren, Udalak jakinarazi du "sakonki" aztertutako lurren lagapenaren espedientea, "eta amaitu gabe dagoela egiaztatu du". Tokiko erakundearen arabera, urtebete eman du prozesuak geldirik, "premiaz hasitakoa bada ere". Anbulatorioa eraikitzeke erabiliko diren lurra Udalarenak dira berez, eta Osasun Sailari lagatu behar zaizkio.

Horren aurreran, "harridura" agertu du egungo Udal Gobernuak, berari egokitu zaiolako "lurren desafekzioa erregistroan inskribatzea". "Are gehiago, Osoko Bilkurak

Anbulatorioa Latorron eraikitzeke obra lizentzia eman du Udalak, baina salatu du lurren lagapenak urtebete eman duela geldirik

2022ko urtarrilaren 31n Osakidetzarekin lurren lagapenerako hitzarmena onartu bazuen ere, oraindik eresinatugabedago", gehitu du Aini-zegastaka alkateak, eta nabarmendu du hitzarmen hori sinatzea beharrezkoa dela lurren lagapena ixteko.

Udalak aurreikusi du bi prozesuak (obrena eta lurren lagapenarena) "paraleloki" garatuko direla, elkarren artean harremana duten arren, "bi afera ezberdin" direlako berez.

Gauzak hala, esan bezala, Udalak bukatutzat eman du azpiegitura berriaren kokapenaren eztabaida, eta beste lehentasun batzuk markatu ditu. Alde batetik, anbulatorioak eskainiko dituen zerbitzuak negoziatu nahi ditu Osakidetzarekin (aipatutako lagapen hitzarmenaren barruan), "ahalik eta ekipamendu osatuenak" izateko. Ildo horretan, "herritarren parte hartzea" sustatzeko haien esku dagoen guztia egingo dutela nabarmendu dute.

Horrez gain, irisgarritasuna bermatzea ere izango da Udal Gobernuaren lehentasunetako bat, "hori delako kokapenarekin ados ez daudeneke erakutsitako argudio nagusia". Horri begira, "alternatibak aztertzen" daudela aurreratu dute, eta iradoki dute Latorroko eskaile-ra mekanikoak estaltzea izan daitekeela egingo dute jardueretako bat, "beste batzuen artean".

Errioxan menuetan zizare larbak izateagatik ikertzen ari diren enpresa eta Lamuza Eskolakoak bera dira

Testua
Aitor Aspuru Saez

Pasa den astean Lamuza Ikastetxeko hezkuntza komunitateak ezinegona zabaldu zuen catering zerbitzuko kalitateagatik. Egun gutxira azalatu zen enpresa beraren janarian zizare larbak agertu zirela Errioxako zortzi ikastetxeren jantokietan.

Lamuza Eskolako Guraso Elkar-teak, ikastetxeko familia guztien izenean eta zuzendaritzako arduradunen babesarekin, eskutitza bidali zion Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburuari pasa den astean. Testuaren helburua eskolako catering zerbitzuaren kalitate eskasa salatzea izan zen, zentroak ez baitu sukaldarik.

Ikasleen senideek azaldu zuten, nahiz eta ikasturtea hasi berri den, umeen artean gero eta ohikoagoak direla keak janaria ez delako goxo eta "ezin delako jan". Gurasoek adierazi zuten ikastetxeko jantokiko arduradunak eta zuzendaritzak umeen iritziak berretsi dituztela.

Egun gutxira, Errioxakoa

Lamuzako hezkuntza komunitatearen salaketaren oihartzuna oraindik isildu ez zenean -hiru egun beranduago, alegia- azalatu zen Laudioko eskolan catering zerbitzua hornitzen duen enpresa -Serunion- ikertzen ari dela Errioxako Gobernuak, erkidegoko zortzi ikastetxeren janarian zizare lar-

bak agertu eta gero. Hain zuzen, familien aburuz, arazoaren iturburua da Eusko Jaurlaritzak irizpide ekonomikoak lehenetsi dituela zerbitzua esleitzean eta, ondorioz, enpresa merkeenaren esku utzi duela lana.

Berez, enpresa horrek Logroñon prestatzen du bazkaria, eskolatik 120 kilometrora, eta gurasoek azpimarratu dutenez, "ez da ikerketa sakonik egin behar, enpresaren izena Interneten idatzi besterik ez, jakiteko beste Autonomia Erkidegotan ezaguna dela eskaintzen duen zerbitzu eskasagatik".

Eskola publikoa zalantzan

Gauzak horrela, Lamuzako Guraso Elkar-teak testuinguru zabalagoan kokatu du catering zerbitzuaren gatazka, eta ez gertakari isolatu gisa: "Egungo politikek, ekintzen bidez edo ez-egiteen bidez, sistema publikoa desegiten dute, itunpeko ikastetxeak diru publikoarekin indartzen jarraitzen dituztelarik".

Gogoratu beharra dago arazoak eta talkak ugaritu egin direla azken urteotan Aiaraldean hezkuntza publikoaren esparruan. Zabalago Eskola ixteko asmoak jendetza mobilizatu zuen Amurrion 2021ean, Aretako Eskolan gela bat ixteko borondateak ere ehunka lagun ateratu zituen kalera aurten eta eskola garraioaren faltak baldintzatu ditu ikasturte berriko lehen asteak.



Lamuza Ikastetxeko komunitatea, hezkuntza publikoaren aldeko argazki batean.

herriz herri

Laudio

Guardianek ez die erantzuten Glavistako egoera konpontzeko deiei



Guardianek Tuteran duen lantegian egin zuten protesta astelehenean. ELA

Testua
Aitor Aspuru Saez

Glavista enpresako beharginek mobilizazioekin jarraitzen dute, Guardianek itzaropenerako tartarik uzten ez duen arren. Irailen ostegunero bildu dira Laudioko Herriko plazan, eta astelehenean Tuterara jo zuten, bertan Guardianek duen lantegiaren aurrean pro-

testatzera. Salatu dutenez, Estatu Batuetako multinazionalak uko egin dio bitartekariekin hitz egiteari, egungo blokeoa gainditzeko.

Halaber, pasa den astean elkar-tu zen langile batzordea eta konkurtsoko-administraria. Beharginek eskatu zioten makinaren salmenta ezabiatzea prozesu osoa bukatu arte, hau da, enpresa ixteko enplegu espedientea burutu arte.

Greba egin gabe amaitu da Euskalteko denden lan gatazka, akordioa lortuta



Langileek modu positiboan baloratu dute hitzarmen berria.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Pasa den astean greba abiatu behar zuten Arabako Euskaltel enpresako dendek (Gasteizen eta Laudio) eta lehen lanuztea irailaren 21ean zegoen deitua. Dena den, aurreakordioa osta-osta lortuta, bertan behera geratu zen aurreko asteko protesta.

Gauzak horrela, atzo (irailak 26) eta gaur egin behar zituzten beste bi lanuzteak, baina aste-

lehenean berretsi eta sinatu zuten hitzarmen berria. Gogoratu beharra dago gatazkaren muina Arabako sektoreko lan hitzarmenazela, 2008tik blokeatuta baitzegoen, berritu gabe. Aintzat hartuta langileen oinarritzko soldata 1.020 euro zirela (hau da, gutxieneko soldata baino apur bat gehiago) eta azken urteetako prezio gorakada, langileek exijitzen zuten %23ko soldata igoera eta bost urteko atzerapenak, baita KPIa urtero eguneratzea.

Amurrio

Mobilizazio eta ekimenak biderkatu dituzte Galder eta Aitorren espetxeratzearen aurka



Amurrioren eguneko mobilizazioaren irudia. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azken egunetan biderkatu egin dira Galder Barbado eta Aitor Zelaia-aren aldeko elkarretaratze, mobilizazio eta ekimenak. Euskal Herri oso-ra zabalduta da dinamika, eta Aiaraldean Amurrioren, Laudio, Orozkon edota Urduñan egin dira protestak.

Irailaren 15ean jakinarazi zuen ANkerkeriari Stop! plataformak bi gazteek espetxeratze agindua jaso zutela. Orduan abiatu zuten mobilizazio dinamika, eta datorren larunbatean -irailak 30- amaituko

dute, Gasteizen 18:30ean Artiumetik eginiko den manifestazio nazionalarekin.

Maiatzean azken erabakia

Maiatzean berretsi zituzten bi gazteen aurkako lau urteko espetxe zigorrak. Hilabete bat lehenago iritsi ziren epaien helegiteak Espainiako Auzitegi Gorenera, bi urteko itxaronaldiaren ostean. Bi gazteen absoluzioa eskatu zuen defentsak. Fiskaltzak, aldiz, zortzi urteko jatorrizko kartzelazigor eskaera aplikatzea eskatu zion Auzitegi Gorenari. Erakunde horrek, aldiz, Audentzia

Nazionalak jarritako lau urteko kartzelazigorra berretsea erabakizuen, baina orain arte ez du espetxeratze agindurik igorri.

Lau urteko prozesua

Modu horretan amaituzen 2019an abiatutako prozedura judiziala. Urte horretako otsailaren 7an Barbado eta Zelaia atxilotu zituzten, "material lehargarriak" zituen bidoi bat "helburu terroristekin" gordetzea egotzita. Ia sei hilabete igaro zituzten prebentziozko espetxealdian, eta 2021eko urtarrilean epaitu zituzten Auzitegi Nazionalan.

32 urteko amurrioarraren heriotzaren ostean, 'in itinere' istripuak ekiditeko neurriak exijitu dituzte sindikatuek

Testua
Aitor Aspuru Saez

Partzuergok langileen desplazamentu kopuru handiari aurre egiteko berehalako neurriak behar dira nabarmendu zuten LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek iragan ostiralean Eibarren.

Elkarretaratzea egin zuten Haurreskolak Partzuergoaren aurrean, aldarrikatze bidaiak murrizteko egindako proposamenak berehala indarrean jartzea. Hau da, ordez-kagunea, permutak eta leku aldatzeak bermatzea. Langileen antolakundearen mobilizazioaren pizgarria iragan asteko asteartean Amu-

rion gertatutako istripu hilgarria izan zen. Hezkuntza erakundearentzat ordezkapen bat egitetik etxera itzultzen ari zela hil zen 32 urteko gizon ezko amurrioarra.

Heriotzak eragin handia izan du eskualdean, ezaguna baitzen gaztea esparru ezberdinetan, baina, batez ere, kirolean.

Urduña



IKER SANTOCILDES
URDUÑAKO ALKATEA

Agur Joseba, egun handira arte!



Joseba Hornes Parrazarrek utzi gaitu 65 urterekin. Iñaki eta Belenen anaia, Janiren eta Aintzineren osaba, bere lagunak laguna, Getxa Goi Txistu Taldeko txistularia, Oilarrak eta Urduñako Santa Zezilia taldeko kidea.

Uste dut jaio nintzenetik ezagutzen dudala Joseba, nire aitaren adin berekoa da, eta kuadrilla berekoa; gainera, gure familiak beti egon dira oso lotuta, eta, beraz, bere musika eta konpainiarekin hazi naiz.

Joseba oso ezaguna zen txistua jotzeagatik. Eta Urduñan txistularia izatea ohore handia da; horregatik da Otxomaioko jaien ikurra Pantaleon de Aguinaga Olavarria, txistularia, 'Bihotza' bezala ezagunagoa. Kalean txistu bat entzuten nuenean, Joseba hor zegoen.

Txistulari gisa egindako ibilbide profesionala eredu garria da, Ihintza Dantzan hasita, Eraunsi dantza taldearekin jarraituz, baita hainbat ezkontzatan, omenalditan eta jaitan bere txistuarekin batera parte hartuz, banaezinak ziren.

Uste dut Urduñako pertsona bat definitu beharko banu, Joseba izango litzatekeela adibide bikaina. Urduña bizitza da, kalean egotea eta bera beti zegoen edozein ospakizunetan. Urduña musika da eta bera beti zegoen instrumentu batekin. Urduña alaitasuna da eta Joseba zen transmititzen zuena. Urduña Bizkaiko hiri bakarra da eta bera harro zegoen horretaz.

Gainera, EAJko afiliatua ere bazen. Beti laguntzeko prest, bere kotxearekin megafoniarekin joaten zen, propaganda banatzen zuen aldirietan. Duela egun batzuk, berarekin egon nintzen; ni kafe bat hartzen ari nintzen eta bera eserita zegoen DEIA egunkaria irakurtzen, eta justu alderdiei buruzko erreportajeak irakurtzen ari zen.

Eta gaur bertan Alderdi Eguna da, eta faltan izango dugu. Urduñarekin desfilatzea gustatzen zitzaion beti, eta gero ilarara itzultzen zen EBBrekin desfilatzera. Atzo galdetu zidaten ea gaur Forondan omenaldiren bat egingo genion, eta esan nien egin geniezaiokeen omenaldirik onena Forondako zelaietara igo eta gozatzea zela, berak egingo lukeen modu berean. Ziur nago, zerutik txistua jotzen ariko zaigula, eta ez da bakarrik egongo, 'Tano' bere ondoan egongo baita.

Atzo agur bat izan zenuen zure parean. Getxa Goi Txistu Taldeko kideek, Urduñako Santa Cecilia bandakoek, Oilarrak taldekoek, Eraunsi Dantza Taldekoek eta beste hainbat lagunek ere agur esan nahi izan zizuten, eta hori zen merezi zenuena.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, Joseba. Bidaia ona izan, lagun. Maite zaitugu. Goian bego!

Artziniega

Zabalik dago Barcena kirol guneko skate pista



10:00etatik 22:00etara egongo da zabalik kirol azpiegitura eta kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Aiaraldea.eus

Testua
Jone Gartzia Gerra

Erabiltzaile guztiek Barcena auzoko skate parke berriaz gozatu dezaten, Artziniagako Udalak hainbat arau ezarri ditu. Esaterako, kaskoa derrigorrezkoa izango da pistetan patinatzeke eta ukondokoak eta belaunetakoak erabiltzea gomendatu du Udalak. Izan ere, gogoratu du kirol hori ez dagoela "arriskutik kanpo" eta arduraz egiteko eskatu die erabiltzaileei.

Edonork erabil ditzake pistak ezarritako ordutegian, baina 12 urtetik beherakoek lagunduta joan beharko dute. Nahi duen orok skate parkeaz gozatzeko aukera izan dezaten, espazioa errespetatzeko, partekatzeke, besteei laguntzeko eta txandak adosteko eskaria luzatu du tokiko gobernua.

Pistetan skateak, skateboardak, patinak, scooterrak, bizikletak eta gurpil-aulkiak soilik erabil daitezke, debekatuta daude motordun ibilgailuak eta mendiko zein erre-

pideko bizikletak. Gainera, Udalak gogoratu du kirol eremu berria ez dela "haurrentzako jolasgunea", eta arduraz erabiltzeko eskatu du. Erabiltzaileek ezingo dute argizarririk, xaboirik edo bestelako substantziarik jarri *coping* edo txirrista ertzetan, eta euria egiten duenean ezingo dituzte pistak erabili.

Udalak gogoratu du Barcena kirol gunea erabat kerik gabeko gunea dela eta patinatzaileei eskatu die arretaz eta euren mailaren arabera patinatu dezaten.

Orozko

Bizikletek hartu dute Orozkoko herrigunea

Testua
Aitor Aspuru Saez

Bizikleta Egunaren edizio berria ospatu zuten iragan igandean Orozkon eta ume eta gazte mordoa batu zen egitaspora. Herrigunea zeharkatu zuten lehenbizi eta gero askaria zuten prest Zubiaur plazan.

Eskualdeko beste hainbat tokitan ere egiten dira antzeko dinamikak urtean zehar, mugikortasun jasangarria sustatzeko.



Dozenaka lagunek hartu zuten parte egitasmoan. **Samu Pasandin Sanchez**

herriz herri

Aiaraldea

Aurreko urteetako dinamikari jarraiki, Aiaraldeko udalerrri gehienetan (Amurrio, Orozko, Urduña, Artziniega, Okondo, Aiara eta Laudion) garatuko da programa. Urriaren lehen hamabostaldian abiatuko dute jarduera zikloa.

Urrian abiatuko da Laia eskolaren edizio berria Aiaraldean



Testua eta argazkia
Jone Gartzia Gerra

Amurrioko Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan bildu ziren iragan astean Arabako zein Bizkaiko hainbat politikari Laia Arabako emakumeen jabekuntza eskolak 2023-2024 ikasturterako duen programazioa aurkezteko. Zehazki, Jone Berriozabal Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saileko foru diputatua, Encina Castresana Aiarako Kuadrillako presidentea eta Aiaraldeko berdintasun teknikariak egon ziren aurkezpen ekitaldian, eskualdeko udalerrri arabarretako eta Urduñako zein Orozkoko hainbat ordezkariarekin batera.

Bertan entitate guztiek "berdintasunarekiko eta emakumeen ahalduzuekiko" duten konpromisoa berretsi zuten. Joana del Hoyok esker onak adierazi zizkien Aiarako Kuadrillari, Aiaraldeko Udalei, bertako berdintasun teknikariari eta mugimendu feministari urtean zehar egiten duten lanagatik.

Egitaraua herriz herri

Jarraian, udalerrietako ordezkariak 2023-2024 ikasturtean Laia eskolaren barruan beren herrietan egingo dituzten jarduerak azaldu zituzten. Aurkezpenaren anfitrioiek hartu zuten lehen hitza, Amurrioko ordezkariak. Azaldu zuten urriaren 20an eta 21ean egingo dituztela Laia eskolaren lehen ekintzak, hirigintza feministari lotuta. Horrez gain, azaroaren 18an hiru bazarriketa feminista hartuko ditu Amurrio Antzokiak, "indarkeria matxista umorez salatuzeko".

Orozkoarrek bi ekintza aurkeztu zituzten. Lehena, Adirane Azkue-naga argazkilari eta aktibista feministak Kultur Etxean emango duen argazkigintza ikastaroa, *Auto-ezagutza eta ahalduzuekiko argazkigintzaren bidez* izenekoa. Urriaren 19an eta 26an eta azaroaren 9an, 16an, eta 23an egingo dute Kultur

Etxean. Bigarrena, urtarrilean abiatuko duten *Lodifobia, koipe matxinada* lantegia izango da. Laura Galar Perez de Onralta hezitzaile eta militante lodi transfeministak gidatuko du eta hau ere Kultur Etxean izango da, astearte arratsaldetan.

Urduñan hiru ikastaro iragarri dituzte. Lehena urriaren 7an izango da, Maitena Monroy indarkeria matxistan trebatutako fisioterapeutak emango duen autodefentsa feminista ikastaroa, hain zuzen. Azaroaren 23an, ostegun arratsaldetan, mikroantzerki eta biodantza lantegia egingo dute eta, azkenik, martxoaren 8an *Galdutako gakoaren bila* izeneko ihes gela antolatuko dute urduñarrek.

Artziniegan, ostera, *Emakume migratzaileen ahalduzuekiko gunea* jarriko dute martxan urria eta azaroan. Hajar Samadi gizarte langile, aktibista eta trebatzaileak koordinatuko du. Horrez gain, urtero bezala, Zinegoak LGTBIQ+ zinema jaialdiaren film laburren proiektzioa antolatu dute maiatzaren 17an.

Okondon helburu zehatz batekin prestatu dute lantegia: herriko talde feminista eratzea eta Aiaraldeko sare feminista indartzea. Horretarako, Emagin elkartearen laguntza jasoko dute eta inguruko herritarrei ere luzatu diete parte-hartzeko gonbita, "prestakuntza eta estrategia bateratuak partekatzeo aukera izateko". Bestalde, gazteei zuzendutako *Hilerokoa ezagutzen eta errespetatzen* lantegia antolatuko dute martxoaren 2an, Saioa Hernandez sexologo eta berdintasun teknikariak lagunduta.

Aiara urriaren 21ean oinarriko brikolaje lantegia egingo dute, emakumei askotariko oinarriko konponketak egiten irakasteko. Arespalditzako Emakumeen Gelan izango da eta Carmen Melchor iturgintza, gas eta berokuntza instalatzaileak emango du. 2024ra begira, otsailaren 10etik ekainera



Iragan astean egin zuten programaren aurkezpena Amurrioko Udaletxean. Aiaraldea.eus

Amurrio, Orozko, Urduña, Artziniega, Okondo, Aiara eta Laudion egingo dituzte jarduerak

bitartean hilean bi larunbatez emango dituzte *Norberaren maitasuna, askatasunaren giltza* izeneko biodantza lantegiko saioak. Bestalde, martxoaren 9an Maitena Monroy Arespalditzan egongo da autodefentsa ikastaroa ematen.

Laudion Irakurketa Errazeko Klub feminista jarriko dute martxan lehen aldiz. Urriaren 17tik aurrera asteartero elkartuko dira herriko liburutegian Natalia Jimenez Euskadiko Irakurketa Errazeko kideak lagunduta. Estreinako aldiz martxan egongo den beste lantegi bat *Chi Kung: gure bizi-energia hobetzen* izango da. Txinako medikuntzako arte honek "lagundu egiten digu gure gorputzarekin konektatzen, bizi-energia indartzen, estresa murrizten, gorputz-jarrera hobetzen eta emozioak harmonizatzen". Idoia Eizmendi berdintasun teknikari, kazetari eta mugimendu feministako kideak emango du urtarrilaren 12tik otsailaren 16ra bitartean, ostiral arratsaldetan, Lezeaga Aretoan. Azkenik, otsailaren 24an Maitena Monroy Laudion egongo da autodefentsa feminista ikastaroa emateko.

Horrez gain, aurtan bigarreneguz Laudioko Laia eskola antolatuko dute herrian. Aurkezpena irailaren 26an izango da, 18:30ean Lezeaga Aretoan. Virginia Imaz Quijera pailazoaren *Akelarre* antzerkiak gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Eta gehiago...

Herriz herrikakoak aipatuta, Aiarako Kuadrillak antolatu dituen ekintzei erreparatu behar zaie. Castresana presidentek bi ekimen berri eman zuten aurkezpenean. Batetik, irakurle-klub feminista, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dutena. Euskarazkoa Laudioko liburutegian egingo dute hileko hirugarren asteazken arratsaldetan, eta online jarraitzeko aukera ere egongo da. Bigarrenik, azaroaren 4an emakume bidaiarien inguruko solasaldia antolatuko dute Artziniegan Eskualdeko Berdintasun Topaketan barruan.

Aipatutako ekintza horietaz guztiez gain, ikasturtean zehar berdintasunaren aldeko jarduera gehiago egingo dituztela adierazi dute udalerrietako ordezkariak.

Aiaraldea

Renfeko sindikatuek salatu dute 6.230 gertakari egon direla udan Bizkaiko zerbitzuan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Bizkaiko Renfeko enpresa batzordeak salatu du udan 6.230 aldiz geratu direla Bilboko aldiriko zerbitzuak bertan behera edo atzeratu direla garraio zerbitzuan.

Hori dela eta, elkartasuna adierazi diete erabiltzaileei (haien us-tez litekeena da guztiak kalteren bat bizi izana) eta enpresaren egoera salatu dute.

Sindikatuak azpimarratu dute urterik urte egoerak okerrera egiten duela "erakundeen konpromiso faltagatik, utzikeriagatik eta inbertsio gabeziagatik".

Hain zuzen, langile antolakundeek azpimarratu dute zuzendari-tzarekin bildu direla eta horrek ez duela neurririk hartu arazoei irtenbidea bilatzeko. Hori dela eta, sindikatuek beste bide bide batzuk lantzeko beharra jarri dute mahai gainean, enpresa sakatzeko.

Langile nahikorik ez

Enpresa batzordearen iritziz, arazoen iturburua da mantentze-lanetan eta salmenta puntuetan behar beste beharginik ez dagoela, eta gidariak ere ez direla nahikoak.

Gainera, konponketa-lantegietan egoera okertu omen da, azaldu dutenez: "Lehenengo aldiz ma-



Udan gertatutako matxura baten irudia. Aiaraldea.eus

Sindikatuak aburuz, langile faltagatik eta matxurengatik gertatzen dira atzerapenak eta arazoak

txurek gainezka egin dute". Trenak zaharrak direnez, matxura gero eta gehiago eta konplikatuak dituzte.

Bestetik, sindikatuek nabarmendu dute Ollarganen dagoen tailerraren baldintza materialek okerrera egin dutela. Dirudienez, piezarik eta azpiegitura egokirik gabe lan egin behar dute trenen mantentzean eta konponketan.

Horrek guztiak, salatu dute, eragin du "maiz aire giroturik gabe egotea, edo megafonia barik, motorren parteekin deskonektatuta, kristal apurtuekin, eserlekurik gabe eta, kasu okerrerenetan, matxurekin, zeinek trenbidean geldirik uzten dituzten trenak bidaiari guztiak".

20 egun aurreratu dute mahatsaren bilketa



Erabakiak ekoizpenean eragina izango duela uste dute. Arabako Txakolina

Testua
Aitor Aspuru Saez

Kalitatearen eta kopuruaren artean hautatzer behartuak egon dira txakolingileak aurtengo uzta jasotzeko orduan, eta lehenengo ezaugarriaren alde egin dute, azaldu dutenez.

Euriek eragindako hezetan

arriskuan jarri du uzta eta, horregatik, urriaren 17ra arte egongo dira mahatsa biltzen. "Zalantzarik gabe, ekoizpenaren beherakada gertatu da, baina uste dugu neurri horrekin kalitate mailari eutsiko diogula, kopuruaren kalterako bada ere", azaldu du Jose Antonio Merino Arabako Txakolina Elkartearen gerentek.

Astaldiko BEGIRALE Ikastaroa 2023-2024

EUSKO JAURLARITZAK
HOMOLOGATUTAKO TITULUA



Edukiak:

- 12 asteburu. 16 gai ezberdin; udalekuak eta kanpamenduak, lehen soroospak, talde dinamika, parte hartzea...
- Testuinguruan oinarritutako metodologia parte hartzailea
- Tokian tokiko hezkuntza eragileekin sare lanean
- 3 egonaldi; 2 aterpetxean eta 1 kanpaldian

Egutegia:

2023ko urriatik 2024ko ekainera

Iraupena:

150 ordu teoriko eta 160 ordu praktikiko

Baldintzak:

- Euskara maila ona izatea
- 18 urte izatea (praktikak hasi aurretik)

Prezioa:

450€

Ikastaroko egutegi osatua eta gainontzeko informazioa:
944 32 04 45
eskola@urtxintxaeskola.eus
www.urtxintxaeskola.eus

Izena emateko azken
eguna: Urriak 6



CLÍNICA DENTAL OROZKO



Hortz osasuntsuekin
konfiantza irabaziko dute

Interesik gabeko finantzaketa

MINIK GABEKO LASER BIDEZKO
HORTZ -TRATAMENDUAK

3D DIAGNOSTIKOA

AHO BARNEKO ESKANERRA
(CAD-CAM)

Lehendakari Agirre enparantza 8 behea, OROZKO · www.clinicadentalorozko.com

946 61 04 19 · 688 678 604 (Hitzorduak Whatsapp bidez ere ematen ditugu)



elkarrizketa

“Esperientzia hauek estali egin dira gehienetan, baina berebiziko garrantzia dute zauriak osatzeko”

GARAZI ABRISKETA (Arrankudiaga-Zollo, 1988) AMA IZAN ZEN EKAINEAN, BAINA BERE ALABA HILIK JAIO ZEN. ESPERIENTZIA HORREK AMATASUNARI, HERIOTZARI ETA TABUARI BURUZ LUZE ETA SAKON HAUSNARTZERA ERAMAN DU.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Zer da maiatzaren amaieran gertatu zitzazuna?

Haurdun nengoen eta 31. astea bete berri, ospitale-ra joan nintzen, astero joaten nintzen kontsultara, baina bezperatik ez nuen umea nabaritzen. Esan zidaten likido amniotiko ugari nuenez, arrunta izan zitekeela ez nabaritzea. Nik hamaseigarren astetik nabaritzen nuen eta oso arraroa egiten zitzaidan. Halere, umea non kokatuta zegoen ikusteko ekografia egin zidaten. Orduan ikusi zuten umeak ez zuela tau-padarik.

Bakarrik nengoen, COVIDaren protokolotik geratzen

diren ondorio txikietako batengatik, ama kanpoan nuen. Berehala deitu zuten eta nire albora etorri zen. Jarraian aurreko bi hilabeteetan haurdunaldiaz arduratu zen medikua etorri zen.

Nirekin egin zuen negar. Beste batek eman zidan albistea, baina bera etorri zen eta nirekin egin zuen negar. Txikikeria ematen du, baina une horretan oso garrantzitsua izan zen niretzat. Batez ere biolentzia obstetrikoa jasan duten hainbeste emakumeren testigantzak irakurri ditugun garaiotan. Zein garrantzitsua den zurekin hunkitzen diren medikuak bidean aurkitzea.

Jarraian aipatu ziguten onena niretzat erditze baginala izatea zela.

Nola hasi zen dena?

Esan bezala, dena 20. astean hasi zen. Ospitaleko erradiologoak aipatu zigun hainbat gauza ikusten zizkiola fetuari, banan-banan ez zirela larriak, baina guztiak batera sindromeren bat egotearen seinalea izan zitekeela.

Horregatik, hurrengo egunean bertan, Gurutzetako ospitalean dagoen fetuen unitatera bideratu gintuzten. Sindromea edo bihotzeko gaitza baztertu zituzten, baina, esofagoko atreziaren susmoa mantentzen zuten. Informazio horrekin guztiarekin gris eskala bat jarri ziguten mahai gainean. Asko laburbilduz, alde batean, beltzanean, umea oso txikia zenez litekeena zela placentari asko eskatzea, hazi behar zelako, eta txikiegia

elkarrizketa



“Askotan errepikatu didate ni jada ama naizela eta horrek ere laguntzen du”

izatearen ondorioz hiltzea eta, beste aldean, argitsue-
nean umearen arazo bakarria txikia izatea zela eta
oraindik irensten ez jakitea eta horregatik sabela
beteta ez ikustea.

Hori guztia eta tarteko aukera guztiak mahai gainean
izanda, bi eguneko epea eman ziguten abortatu edo
ez erabakitzeko.

Nola hartu zenuen ardura hori?

Oso galduta egon nintzen erabakia nire esku geratu
zelako, hasiera batean emaitzak argiagoak izango
zirela pentsatu nuen eta medikuek erabakia hartzen
lagunduko zidan gomendioren bat emango zidatela.
Kontua da medikuek ez dutela bola magikorik etorki-
zuna ikusteko eta ulertzen dut izan zuten jarrera.

Informazio asko ematen zidaten, lehen aipatu beza-
la gris tonu askorekin, eta ni ideia konkretu batzuekin
geratzen nintzen. Esate baterako, asko markatu zuen
nire erabakia abortatutako ume batzuei egindako
autopsietan ez dela ondoren malformaziorik aurkitu
esan zidatenean. Horregatik, adibidez, izugarri kostat-
zen zitzaidan abortatzeko erabakia hartzea.

**“Biolentzia
obstetrikoa
jasan duten
hainbeste
emakumeren
testigantzak
irakurri
ditugun
garaiotan, zein
garrantzitsua
den zurekin
hunkitzen
diren
medikuak
aurkitzea”**

Erabakia hartzeko izan genituen bi egun horietan
jende askoren iritziak jaso nahi nituen, ez nuen nire
erabakia bakarrik hartu nahi, babes eske aritu nintzen.
Umearen ostikorik sentitzen ez zuen jendearen iritzia
nahi nuen, objektiboagoa izango zelakoan, baina hor
ere norberaren beldurrak sartu ziren eta momentu
batzuetan eztabaida guztiz desitxuratu zen. Izan ere,
beldur ugari ez zuten oinarririk.

Egun haiek prozesu guztiko gogorrenak bezala oroi-
tzen ditut, eta esan nahiko nuke emakumezkoek eman
zidatela sostengua. Esanguratsua izan da, gauza berria
ez den arren... Berri txarrenak jaso izan ditudanean
eta etxean agertzea erreza ez zenean, batez ere, ema-
kumeak etorri dira. Ama, Marije, Maider, Leire, Nerea...
Gizon askok oso txarto pasa dutela badakit, baina ez
dira ezta hurbildu ere egin. Oso adierazgarria izan da.

Zer egin zenuen orduan?

Heldu zen eguna eta ordua eta ez nintzen gai telefo-
noz deitzeko, amak deitu zuen nire orde, nik ezin
bainion negar egiteari utzi. Ginekologoak adierazi zion
aukera nuela hara joateko eguerdian, behin kontsultak
amaituta. Egia esanda, hori izugarria izan zen niretzat,
paper batean idatzitako nire hamaika beldur eta gal-
dera erantzun zizkidan.

Aurrera egiteko erabakia hartu ondoren, lasaitasuna
ikaragarria izan zen. Berritro atsedena hartu nuen eta
ematen zuen ez zela ezer gertatu. Haurdunaldia berri-
ro ilusioz hartu nuen.

elkarrizketa

Kanpotik, badirudi astakeria dela bizirik ez dagoen ume bat erditzera behartzea emakumea, baina amaren ikuspuntutik ez da horrela, ezta?

20. astean abortuaren aukera eman zidatenean, nik medikuei galdetzen nien nola erditu beharko nuen eta ez zidaten erantzuten. Adierazten zidaten erabakia hartu arte ez nuela jakingo zelan izango zen prozesua. Erditu behar nintzela zen nire susmoa, baina agian ebakuntza baten bidez egin behar zutela ere pentsatu izan nuen, imajinatu norainokoa den gai honekiko ezjakintasuna. Baina zesarea ez omen da onena emakumezkoen uteroarentzat, hortaz, hori ekiditen saiatzen dira.

Asteak pasatzen zihoazen heinean, beste kezka batzuk genituenez, erditzeari beldurra gero eta plano urrunagoetan geratzen joan zen. Eta behin umea hil zela jakin nuenean, beldur denak guztiz desagertu ziren. Ez zegoen atzera bueltarik eta ez dakit nondik atera nituen indarrak, baina guztiz ahaldundu nintzen. Umearen aitak lagungarria egin zitzaidan zera esan zidan: “Dena eman duzu ume horren alde, eta orain arte hori izan da gure lehentasuna, baina orain lehentasuna zu zara”.

Zer egin zenuen ordu guzti horietan, dilatatu bitartean?

Gelara sartzen ziren bakoitzean protokoloa zein zen eta hartu beharreko erabakiak zeintzuk ziren azaltzen zizkidaten, beti oso modu gozoan. Hasteko, galdetu zidaten umea ezagutu nahi nuen edo ez. Une oro gogoratzen zidaten azken momentuan iritzia aldatu ahal nuela. Umeari autopsia egitea edo ez gure erabakia izan zen ere.

Bestalde, elkarte batek osatutako kutxa zuten niretzat, umearen oroitzapenak gordetzeko. Nahi izanez gero, erakutsiko zidatela, gero haurraren gauzak han izateko, oinatzen markak, tokilla.... Bide batez, Esku hutsik eta Umamanita elkartearen berri eman zidaten.

Hiru erizain ezberdin pasatu ziren gelatik, batzuk esperientzia handiagoarekin gurea bezalako kasuetan eta beste batzuen lehenengo aldia izanik, hau ere jakinarazi ziguten, zerbaitetan hanka sartuz gero, mesedez, esateko.

Gelako atean tximeleta baten irudia zegoela jakin dut gerora, horrela bertara sartzen ziren langile guztiek gure egoeraren berri eduki zezaten. Tximeleta haurdunaldian, erditzean edo jaio eta gutxira hil diren umeen sinboloa omen da.

Tratua oso ona izan zen, oso errespetuzkoa, eta esker hitzak baino ez zaizkit etortzen.

Beti izan da horrela?

Ez, antza protokolo berria dute orain ospitalean eta beste emakume batzuen testigantzak ezagutu ostean esango nuke orain gutxikoa dela. Ni erditu nintzen ospitalean badago, baina ez dakit gainontzekoetan ere badagoen. Alde batetik, antza, lehen izara batekin erditu behar izaten zuten emakumezkoek, ez zieten umea ikusten uzten eta jaio eta berehala eramaten zuten, orain aukerak dituzu: umea jaio bezain laster ikusi, jantzi ostean edo ez ikustea.

Nire hasierako erabakia izan zen jantzi ondoren ezagutzea, baina erditzean iritzi aldatu eta altzoan jartzea eskatu nien. Ematen du gezurra dela esango dudana, baina nire bizitzako unerik ederrena izan da. Umea ikustea izugarri polita izan zen. Gure alaba guztiz osatua zegoen, txikia zen, baina polit-polita.

Bestetik, lehen, erditu eta emakumezkoak “ama berrien solairura” eramaten zituzten, gelan bizirik jaio den haur baten ondoan egotera. Nire kasuan beste solairu batera eramaten ninduten, eta eskerrak, izan ere, haur jaio berrien negarrak entzuteak min handia eragiten zidan egun haietan.



Esku hutsik eta Umamanita elkartearen kutxa batean gorde dituzten alabaren oinatzen markak. Aiaraldea.eus

“Tratua oso ona izan zen, oso errespetuzkoa, eta esker hitzak baino ez zaizkit etortzen”

Prozesua horrela bizi izanak dolua hobeto eramaten lagundu didala uste dut, oroitzapen ederrak ditudalako, min guztiaren artean.

Eta erditu ostean?

Dilatatzeko aritu nintzen gelara eramaten ninduten berriro. Barruan gurasoak eta lehengusina bat zeuden eta umea ikusteko aukera zutela esan nien, laster ekarriko zutelako. Zalantzaren batekin, baina ikustea erabaki zuten. Klabea izan da hau niretzako. Oso onuragarria.

Alegia, ume horrek aitortza jaso du, eurek ere ikusi dute, existitu da. Esperientzia hauek estali egin dira gehienetan, baina berebiziko garrantzia dute zauriak osatzeko, gure alabak aitortza izan zuten. Lehengusinak altzoan izan zuten, adibidez, eta txikieria ematen duen arren, ni ezin naiteke eskertuago egon, momentu oso ederrak izan zirelako. Izeko ere etorri zen eta denak aritu ginen argazkiak egiten. Umeari bakarrik geratzeko eskatu nien ere, oso momentu berezia izan zen.

Orain gai honen inguruan gehiago hitz egiten dela ematen du eta jende askok kontzientzia garatu du,

elkarrizketa



askotan errepikatu didate ni jada ama naizela eta horrek ere lagundu egiten du.

Arruntena da hau estaltzea. Zuk orde, berehala jakinarazi zenuen sare sozialetan. Asko hausnartu zenuen zabaldu baino lehen?

Bai, nahiz eta egun berean egin, kostatu egin zitzaidan. Ingurukoekin hitz egin nuen honi buruz, lotsa handia ematen zidalako. Hala ere, argitaratu nahi nuen gaia ikusarazteko eta nire burua moduren batean babesteko. Hau da, ez nuen nahi kaletik joan eta jendeak ni zoriontzea, triparik ez nuelako.

Batez ere, ikustaraztea zen asmoa, jendea konturatzeko holako kasuak ere badaudela. Sare sozialetan tripa haurdun pilo ikusten dira, azken egunera arte eta erdiondoko lehenengo egunetik kirola egiten duten emakumeak esaterako, baina badaude ere haurdunaldia ohean pasatu behar duten emakumeak, haurdun geratzeko arazo handiak dituztenak, haurdun gelditzen ez direnak, abortuak bata bestearen atzetik dituztenak edota heriotza perinatala edo neonatala bizi dutenak. Eta hau ere ikusarazi beharra dago.

Batzuk mezu pribatuak idatzi dizkidate gaia atera-

“Emakume askorekin saretzeko balio izan dit, babes handia sentitu izan baitut euren esperientziak kontatu dizkidatenean”

tzeagatik eskerrak ematen, etorri zaizkit batzuk kale-tik euren esperientziak kontatzera, antzeko egoerak bizi izan dituztelako eta beste batzuei ezer esan gabe nabaritu diet horrelako egoerak bizi izan dituztela.

Emakume askorekin saretzeko balio izan dit, babes handia sentitu izan baitut euren esperientziak kontatu dizkidatenean. Hemendik, eskerrik asko. Ikusi dut ez zaidala niri bakarrik gertatu, ez naizela berezia. Zentzu horretan polita izan da babestua sentitzea.

Nolako izan da etxera itzultzea?

Egoera hau oso gogorra eta triste da, eta ospitaleko lehen egun horietan pentsatu nuen ezerk ez zidala berriz ilusiorik sortuko. Ez planik egiteak, ez lanera joateak, ez abesteak... Baina itzuli naiz etxera eta ez da horrela izan.

Izan ere, ez dut oroitzapenik izan umearekin espazio fisiko horretan. Faltan botatzen duzu bere ostikoak tripan sentitzea, berari hitz egitea. Bat-batean buruan zenituen plan guztiak desagertu egiten dira. Data zehatz batzuk heltzearen beldur nintzen, berarekin imajinatzen nituen horiek, baina gero uste baino hobeto eraman dut.

Mugarri bat Aiaraldeko trans borrokan



Eguerdiko mahaingurua izan zen interes gehien piztu zuen jardueretako bat. Aiaraldea.eus

Ehundik gora lagun bertaratu ziren iragan irailaren 23an Laudioko Orbeko Etxean eginiko 'Txao Titis, Titi gabe bada paradisia' jaialdira. Ekimenaren helburu nagusia mastektomia egin nahi duen Laudioko pertsona trans bati ebakuntza hori egiteko dirua biltzen laguntzea izan zen eta erresistentzia kutxa bat sortu zuten horretarako.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Ez zuten deialdia eskualdean barrena lau haizeetara zabaldu, helburua ez zelako jende masa handia erakartzea, edo ez behintzat hori bakarrik. Baina, hala ere, ehundik gora lagun bertaratu ziren iragan larunbatean Orbeko Etxean eginiko 'Txao Titis, Titi gabe bada paradisia' jaialdira.

Helburu bikoitza zuen ekimenak. Lehena, ekonomikoa: Aiaraldean trans erresistentzia kutxa bat eratzea eta, modu horretan, mastektomia egin nahi duen Laudioko pertsona trans bati ebakuntza hori egiteko dirua biltzen laguntzea. Bigarrena, kualitatiboa: eskualdeko zein eskualdetik kanpoko pertsonen arteko saretea sustatzea, aurrera begira proiektuak jarraipena izateko helburuarekin.

Asmo bikoitz horri erantzuteko, jaia eta politika uzartu zituzten Laudioko Gardea auzoko baserri okupa-

tuak, goizetik gauera luzatu zen egitarauarekin. Eguerdiko mahaingurua izan zen interes gehien piztu zuen jardueretako bat. Bost kidek hartu zuten parte bertan, Bilboko bik (Anna eta Be) eta Aiaraldeko hiruk (Ekain, Ira eta Nel).

Nelek ez zuen bertaratzetik izan, eta bideo baten bidez erantzun zien planteatutako galderei. Urduñako bizilagunak "une historikotzat" jo zuen eskualdean horrelako ekimen bat egitea.

Osakidetzari salaketa

Annak eta Bek Bilboko Ozen kolektiboaren izenean hartu zuten hitza, eta ikuspegi politikotik landu zuten trans pertsonen errealitatea. Gogor salatu zuten Osakidetzako Genero Identitate Unitatearen jarrera eta jokabidea. "Behartzen gaitu osasun sistema pribatuaren monstrua elikatzea, eta honek talde transfeminista edo antikapitalista oro interpellatzen du", salatu zuten. Horri lotuta, aldarrikatu zuten

trans auzia ez dela "kontu identitario" bat, "estrukturala" eta "materiala" baizik.

Irak, Nelek eta Ekainek euren bizipen pertsonaletatik tiraka heldu zioten gaiari. "Ni izututa nengoen Genero Identitate Unitatera joan baino lehen, ez nekien bertaratu nahi nuen edo ez", oroitu zuen Irak, "ez bitarra izanda, *performance* osoa egin behar izan nuen, oso gizona nintzela erakutsi. Oso ondo bete behar duzu papera, bestela kanpoan utzi ahal zaituztelako, eta zure identitateari buruz gezurretan aritu behar izateak ondorio emozionalak dakartza".

Antzeko esperientzia kontatu zuen Ekainek, neska edo mutil gisa identifikatzeko derrigortasunean sakonduz. "Nik autoekin jolasten nuen eta ilea motza nuen, baina gustatzen zitzaizkidan *Barbie*ak ere", azaldu zuen, "endokrina bisitatu ostean psikiatrara zoaz. Legez ez duzu zertan bertatik pasa, baina esaten dizute bestela arazo asko izango dituzula".

Helburu bikoitza izan zuen jaialdiak. Lehena, ekonomikoa: Aiaraldean trans erresistentzia kutxa bat eratzea eta, modu horretan, mastektomia egin nahi duen Laudioko pertsona trans bati ebakuntza hori egiteko dirua biltzen laguntzea

Ebakuntzaren esperientzia ere kontatu zuen. "Hiru ziturajuen aurretik pasa behar izan nuen, bakoitzak gauza ezberdin bat esan zidan. Ni ilusio askorekin joan nintzen, baina ebakuntza oso gaizki ateratu zen, plugu asko egin zizkidaten. Nire bikotekide ohiari ere antzeko gauza bat gertatu zitzaion, eta sendaketan titi-buru bat ateratu zioten".

Nelek, bere aldetik, Kataluniara jo zuen prozesu medikua egitera, eta bertako Transit zerbitzuarekin egin zuen. "Beste sistema publiko bat" eratu behar dela aldarrikatu zuen urduñarrak, "laguntza ez-patologizatzailea" eskainiko duena.

Hizlari guztiek bat egin zuten ideia batekin: hormonazio eta ebakuntzek garrantzia izan arren, pertsona trans guztien errealitatea ez dela prozesu medikuetatik pasatzen.

Horri lotuta, bestelako erreferente batzuk egotearen garrantzia jarri zuten mahai gainean, ebakuntza-

rik edo hormonaziorik ez hartzea erabaki duten pertsonena.

Hiria VS herria

Medikuntzaren esparrutik harago ere mintzatu ziren mahainguruan. Luze eta zabal hitz egin zuten hiriaren eta herriaren arteko dikotomiari buruz. Bi eremuetako zein da bizigarriagoa transpersonentzat? Ondorio argi bat atera zuten: ezin dela ez bata ez bestea idealizatu.

Ekainek, adibidez, kontatu zuen Bilbon ezagutu duela LGTB kolektiboko pertsona gehien. “Nik Laudion ez nuen sarerik, lagun solteak nituen. Armairutik atera nintzen 12-13 urterekin eta jende orok ezagutzen ninduen nire kurtsoko bollera moduan”.

Nelek, bere aldetik, azaldu zuen “oso bakarrik” bizi izan zuela Urduñan bere trantsizio prozesua, eta aitortu zuen askotan desiratu izan duela hirira jotzea. “Une honetan

Aiaraldeko hiru bizilagunek hartu zuten parte eguerdian eginiko mahainguruan, Bilboko beste bi kiderekin batera. Osasun sistema publikoan jasaten dituzten trabak izan zituzten hizpide, besteak beste

ezin dut Urduñatik joatea erabaki, nire haurra hemen bizi delako”, adierazi zuen. Baina, era berean, aitortu zuen herriek badutela “bestelako potentzialitate bat”. “Harremanak estuagoak dira bizilagunen artean, eta hori baliatu dezakegu elkartasuna eta elkar-laguntza josteko, ez soilik sexu-genero disidenteen artean, baita beste bizilagunekin ere”, aldarrikatu zuen. Ozeneko kideak, aldiz, kritikoago mintzatu ziren hiriari buruz. “Niri gehiago egin didate garrasi Bilbon beste toki batzuetan baino, hiria kaka bat da, ezin da idealizatu”, nabarmendu zuen Annak.

Aurrera begira


Prozesu medikua sistematik kanpo egiteko aukerak, beste herrialde batzuetako esperientziak eta beste hainbat gai ere landu zituzten mahainguruan zehar. Ondoren poesia emanaldiari bide eman zioten, bazkaria

Antolatzaileek ez dute dinamika egun bakarrera mugatu nahi. Erresistentzia kutxa elikatzen jarraitu nahiko lukete, etorkizunean sortu daitezkeen beste beharrei erantzuteko

baino lehen. Arratsaldean, aldiz, aisialdi jarduerak nagusitu ziren, bingo musikatuekin, olinpiadekin edota kontzertuekin, besteak beste. Modu horretan, egunaren helburu ekonomikoa aise gainditzea lortu zuten, antolatzaileen hitzetan. Egunerako propioa eginiko materiala, barra txandak eta Orbeo etxean barrena jarritako itsulapikoak baliatu zituzten horretarako.

Helburua bete duten arren, ez dute bidea hemen amaitu nahi. Erresistentzia kutxa elikatzen jarraitu nahiko lukete, etorkizunean sortu daitezkeen bestelako beharrei erantzuteko, baina oraindik ez dute zehaztu hurrengo urratsa. Momentuz, jaialdiaren balorazio osoa egin nahi dute.

Larunbateko zita, beraz, hasierako mugarri bat baino ez da antolatzaileentzat; ikusteke dago bidea noraino iritsiko den.



elkarrizketa

“*Trans pertsona guztiok ez dugu zertan prozesu mediku batetik igaro*”



IRA PEREIRO URKIJOren (Laudio, 1993) MASTEKTOMIA FINANTZATZEKO EGIN ZEN TXAO TITIS JAIALDIA IRAGAN LARUNBATEAN ORBEKO ETXEAN, ARAZO PERTSONAL BATI IRTENBIDE KOLEKTIBOIA EMATEKO, TRANS ERRESISTENTZIA KUTXA SORTUAZ.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Hasteko, zer moduz joan zen Txao Titis jaialdia? Helburuak bete zenituzten?

Helburuetako bat zen xede zehatz baterako dirua lortzea, eta alde horretatik aurreikuspenak gainditu ditugu. Jendea asko inplikatu da ekonomikoki. Espero genuena baino jende gehiago bertaratu zen jaialdira, eta egitarauan zeuden gauza guztiak aurreikusi bezala atera ziren, eta hori sekulako plazerra da. Horrez gain, batzuk esan digute oso gustura egon zirela. Espazioa ere oso ondo egon zen, Orbeo Etxeko kideak erabat inplikatu baitziren ekimenean. Balorazioa oso positiboa da orokorrean, eta horri gehitzen badiogu antolakuntza taldeak aurretik eta egunean bertan eginiko lana, makineriak bikain funtzionatu zuela esan dezakegu.

Nondik sortu zen jaialdia egitearen beharra?

Jaialdiaren ideia sortu zen nik mastektomia egitea erabaki nuelako eta, hainbat arrazoi medio, osasun sistema pribatutik egitea erabaki nuelako, horrek dakarren pisu ekonomikoarekin, nahiko zaila pertsona bakar batek bere gain hartzeko. Bageneukan Bilboko lagun baten erreferentzia, iaz antzeko jaialdi bat egin zuena asmo berarekin. Orduan, esperientzia hura kontuan hartuta, erabaki genuen kolektiboki zeozer sortzea eskualdean. Horrela sortu zen ideia, eta hortik aurrera garatu dugu, modu asanblearioan. Modu kolektiboan sortutako egitasmoa izan da, ez modu pertsonalean. Horrela sortu zen jaialdiko egitaraua.

Zer dela eta erabaki zenuen mastektomia egitea? Eta zergatik klinika pribatu batean?

Mastektomia bat egitea titiak kentzean datza, funtsean, eta ebakuntza hori hainbat arrazoiengatik egin daiteke. Bularreko minbizia izatea da arrazoi ezagunena, baina jende transmaskulino askok ere erabakitzen dugu titiak kentzea,

gorputz-atal horrek deserosotasuna sortzen digulako, gehienbat gizarte honetan ez digutelako erakutsi pertsona transmaskulino batek titiak izan ahal dituela.

Ebakuntza plastiko bat da, Osakidetzako Genero Identitate Unitatearen bidez kudeatzen dena. Gure erkidegoaren kasuan unitate hori Gurutzetako ospitalean dago zentralizatuta, bakarra daukagu. Medikuntzako hainbat agente daude bertan: endokrinia, psikiatria, zirujaua, erizainak eta abar. Berez, zerbitzu horretan bermatu behar dizute mastektomia bat egitea, zuk behar baduzu.

Zer gertatzen da? Ez dela horrela. Alde batetik, ebakuntza egiteko arazoak jarri ahal dizkizute, adibidez, ez baduzu hormonatu nahi. Gizon peto-petoa izatea eskatzen dizute, eta ez dago beste aukerarik. Bestetik, oso lodifoboak dira, gorputz zehatz bat izatea eskatu ahal dizute ebakuntza baimentzeko.

Eta gero, aurretik esandakoa: oso sistema bitarra da. Bi aukera daude: emakume trans bat izatea edo gizon trans bat. Pertsona ez-bi-

tar bat bazara ez zara sistema horretan sartzen. Horren aurrean, bi aukera daude. Lehena, ez-bitarra zarela esatea eta genero unitateko zirkuitutik kanpo geratzera arriskatzea (ezagutzen ditut halako kasuak), edo antzerkia egitea. Nik bigarrenaren alde egin nuen, zerbitzu hori behar nuelako, hormonazioaren aferarako, batit bat. Erabaki nuen gizona nintzela esatea eta *performance* osoa egitea, horrek dakarren guztiarekin. Gizon peto-petoa behar duzu izan, txikitari autoekin jokatzeko zenuela eta futbola gogoko zenuela esanez. Nahiko gogorra da, orduak eta orduak hitz egin ahalko nuke horri buruz.

Behin mastektomia egitea onartzen dizutenean, gertatzen da sistema publikoaren esparru guztietan gertatzen dena: itxaron-zerrenda nahiko etsigarriak daudela, horrek emozionalki dakarren guztiarekin. Baina, horrez gain, sekulako triskantzak egiten dira. Nahiko gutxi axola zaie trans pertsonen bizitza kalitatea. Argudiatzen dute eurak ez direla zirujau este-

tikoak eta titiak kentzera mugatzen direla, ez dela euren ardura gero itxura aldetik nola geratzen den. Ezagutzen ditut titi-buruak erori zaizkien pertsonak. Geratzen diren orbainak ere izugarriak dira, beldurrezko istorioetakoak dirudite, eta horrekin egon behar zara bizitza osoan, ez da edozein lelokeri.

Aipatutako gauza guztien batuzatik erabakitzen dugu batzuk ebakuntza pribatutik egitea. Hor atzean dagoena da sistema publikoan dauden zirujau berdinak daudela pribatuan, negozio paralelo hori dutela eta, sorpresa: pribatuan emaitzak askoz hobeak dira, ez dago itxaron-zerrendarik eta arreta askoz pertsonalagoa eta gertukoagoa da. Eta zirujauak berdinak dira, kasu askotan. Osasunaren beste esparru batzuetan gertatzen den gauza bera gertatzen da kasu honetan ere.

Niretzat behintzat beldurgarria izan da pribatuaren aldeko apustua egitea. Badakigu sistema publikoaren alde egin nahi dugula eta pribatua abolitu eta minimoan utzi, jende aberats eta pijoarentzat bai-

elkarrizketa

no ez. Baina, aldi berean, horren alde egiten dugu, prekarioak izanda gainera. Ni zentzu horretan pribilegiatua naiz, izan dezakedalako pertsonalki dirua lortzeko moduren bat eta badaukadalako sare bat Orbekoko jaialdia bezalako dinamika bat sortzeko. Baina jende askok ez du aukera hori, eta bere gorputza arriskuan jarri behar du sistema publikoan. Gainera, modu honetan pribatuen munstroa elikatzen dugu, eta betiko jokoan erortzen gara, baina tira.

Dena den, gauza bat utzi nahi dut argi: pertsona trans guztiak ez dira pasatzen prozesu mediko batetik. Badago trans jende asko ez duela nahi/behar hormonatu eta ez duela nahi/behar ebakuntza batetik pasatu, eta trans esperientzia hori beste edozein bezain zilegia da.

Nik askotan sinistu dut 'trans on eta benetako' eta 'trans txar edo gezurrezkoaren' istorioa, eta kontu hori ez da egia. Osasun sistema publikoa askotan aipatzen ari gara elkarrizketa honetan nire kasu pertsonalean eragina izan duelako, baina hori baino ez. Nirea ez da egun batetik besterako erabakia izan. Urteak egon naiz pentsatzen erabaki horiek hartu edo ez.

Zorionez, geroz eta erreferente gehiago ditugu. Trans pertsona zaharragoen bizipenak irakurri ditut, eta kontatzen dute nola euren

“Pertsona ez-bitarra bazara bi aukera dituzu Osakidetzan: ez-bitarra zarela esatea eta genero unitateko zirkuitutik kanpo geratzera arriskatzera edo antzerkia egitea. Nik bigarrena aukeratu nuen”

garaian erreferente bakarra La Veneno zen. Sekulako erreferentea da, baina oso modu zehatz batekoa ere bai: denak igarotzen ziren ebakuntza eta prozesu medikoetatik.

Gaur egun baditut bestelako erreferente batzuk, nire inguruan horietako asko, eta inoiz izan dudan zorte-kolperik onena iruditzen zait. Badaude titiak kendu nahi ez dituzten gizon transak, jende ez-bitar oso maskulinoa makillatu eta soinekoak janzten dituenak, zakila edo bizarra duten emakume transak... horrelako erreferenteak ezagutzeak asko lasaitzen zaitu zure erabaki propioak hartzerako orduan, eta genero-arauak hausten ditu, nahiko modu interesgarrian, gainera.

Txao Titis jaialdira itzuliz, bertan eskaini zenuten mahainguruan asko landu zenuten hiria VS landa eremua dikotomia. Zu Laudion bizi zara, baina askotan jotzen duzu Bilbora. Bizigarria da Aiaraldea trans pertsonentzat?

Laudio herri bat da Bilborekin alderatuta, eta egia da zentzu horretan oso herri garela. Denok ezagutzen dugu elkar... baina maila ezberdinak daude. Nik 15 urte nituenean eta plazaratu nuenean bollera nintzela uste nuen munduko bollera bakarra nintzela, ez nuelako besterik ezagutzen. Adin horretan ez nintzen Laudiotik asko

“Sistema publikoan benetako triskantzak egiten dira. Atzean dagoena da sistema publikoan dauden zirujau berdinak daudela pribatuan, negozio paralelo hori dutela eta, sorpresa: pribatuan emaitzak askoz hobeak dira”

ateratzen, eta ezagutzen nituen bollera bakarrak futbolari esker ezagutu nituen, Ugaon. Orain aldatu egin da egoera. Nire ahizpak ni baino sei urte gutxiago ditu, eta bere belaunaldian askoz jende gehiago ikusten dut zalantzan jartzen heteroa izatea edo sexu identitatea. Ikusten dut jendea askoz “askeago”, kakotx guztiekin, baina gero jende horrek askotan hirira joaten jarraitzen du parranda egitera. Guk gure garaian baino espazio gehiago okupatzen dute herriko kaleetan eta jai-eremuetan, baina parranda botatzeko ez dago tokirik. Orduan, zure mikro-munduak eratu behar dituzu, iragan larunbatean Orbekon egin bezala, edo bestela hirira jo behar duzu.

Ez da soilik jipoi bat jasotzeko arriskua izatea edo ez. Berez, baliteke herrian horretarako arrisku gutxiago egotea, jendeak betidanik ezagutzen zaituelako. Baina ez da horrenbeste erasotua izateko arriskua duzula, baizik eta ez dela zuk nahi duzun parranda giroa sortuko. Orduan, zer egingo duzu? Bada, hirira joan.

Alde horretatik ez dut uste gauzak asko aldatu direnik azken urteetan, eta ni apur bat ezkor nago arlo horri dagokionez. Baina presentzia badago, jende gaztea geroz eta indartsuago dator.

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian irakurgai.



Orbeko Etxean iragan larunbatean eginiko jaialdiko mahainguruan parte hartu zuen Ira Pereiro Urkijok, eskualdeko zein Bilboko beste kide batzuekin batera. Aiaraldea.eus



Datorren asteburuan ospatuko dituzte *Bañuetako jaiak*

Ostiral honetan (irailak 29) emango ditek hasiera Amurrioko Bañueta auzoko jaiet. Auzoa 1980ko hamarkadan girotuko dute eta 19:30ean jaurtiko dute txupinazoa. Segituan Partymanek hartuko du Bañueta alaitzeko ardua, baina, hori baino lehen, haurrentzako jolasak egongo dira auzoan 17:30etik aurrera. Iluntzean Izaskun Del Cerrok zumba klasearekin dantzazaziko ditu festazaleak eta 22:30ean Hotel Ruido musika taldeak hartuko dio lekukoa. Gauerditik aurrera musika rekin luzatuko dute jaiak hala nahi dutenek.

Egun handia

Hala ere, bizilagunekin darrak gorde behar-

ko dituzte hurrengo egunerako. Izan ere, larunbatean, irailaren 30ean, goizean goiz hasiko dute eguna bañuetarrek. Kirolezaleak 9:30ean abiatuko dira mendira eta 10:30ean xake lehiaketa antolatuko du Amurrioko Xake Taldeak. 11:00etan motor klasikoak aterako dituzte eta goiz osoan irauango du erakusketak.

Ordu berean izango da lehiaketa gastronomikoaren txanda, tortilla txapelketarena, hain zuzen. Parte hartzaileek 12:30ak arte izango dute arrautz-opilak aurkezteko tartea. Hori baino lehen, ordea, ohiko omenaldiak egingo dituzte auzokideek eta 14:30ean bilduko dira guztiak batera bazkaltzeko.

Arratsaldean xakeak berriz hartuko du Bañueta, 16:30etik aurrera haurrei zuzendutako ekintzekin. Nahi dutenek kartetan aritzeko aukera ere izango dute, 17:00etan mus txapelketa abiatuko baitute Arkune tabernan.

Horien ostean bowl erakusketa, txokolate jana eta txiki entzako diskodantza egongo dira eta 20:00etan AEFAT maratoiko korrikalariei egingo diete harrera bañuetarrek.

21:30ean auzokide guztiak elkarrekin afalduko dute eta 22:30ean Tutuka musika taldeak igoko da oholtzara. Festa ordu txikiak arte luzatzeko, musika jartzaile batek hartuko du Bañueta dantzan mantentzeko ardura.

JAIK

09.29 Ostirala

OROKO
BERAZAKO JAIK
12:00 // Meza
17:30 // Kalakan egurrezko jokoak eta graffiti tailerra
18:30 // Pallazoak eta txokolate jana
21:00 // The Smoke Dealers, sardinak eta lukainka
Beraza auzoan

09.29 Ostirala

LAUDIO
EUSKARAZ BIZI JAIK
17:00-18:30 // Euskaraz bizi tailerrak
19:00 // Karaoke ibiltaria herriguneko kaleetatik, txokolate-jana eta eskal buruhandi mitologiakoak
20:00 // Filma laburren emanaldia eta sari banaketa
21:00 // Trikipoteoa, Herriko plazatik abiatuta
Herrigunean

09.30 Larumbata

URDUÑA
MIKEL DEUNA JAIK
11:00 // Txupinazoa
12:00 // Patata tortilla txapelketa
12:00 // Puzgarriak
13:00 // Trikipoteoa herrian zehar
14:45 // Auzokideen argazkia
15:00 // Herri bazkaria
17:30 // Aurpegi margoketa
18:00 // Goitibera jaitziera
18:30 // Txokolate jana
19:00 // Txapel jaurtiketa txapelketa
21:00 // Elkartasun parrillada
22:00 // Kontzertuak: MTB eta DJ Mikel Deuna
Kiko iturrian

09.30 Larumbata

LAUDIO
EUSKARAZ BIZI JAIK
12:00-14:30 // Kantu jira Nafarroa taldearekin
14:30 // Herri bazkaria
19:00 // Dantza plaza
21:30 // Erromeria diskofesta
Herrigunean

09.30 Larumbata

OROKO
BERAZAKO JAIK
14:30 // Herri bazkaria eta bingoa
17:50 // Mus azkar txapelketa
18:30 // Yogurinha Borova
21:30 // Joselu Anayak eta DJ K
Beraza auzoan

TAILERRAK

09.29 Ostirala

18:30 URDUÑA
FAKTURA ELEKTRIKOA ETA AURREZTEKO NEURRIAK
AZALTZEKO TAILERRA
Pello Insaustiren hitzaldia
Asteklima ekimenaren barruan
Alondegia

09.30 Larumbata

10:00 URDUÑA
SASKIGINTZA GARAIKIDEA, NATURAN OINARRITUTAKO SOLUZIOAK
Asteklima ekimenaren barruko jarduera
Alondegia

09.30 Larumbata

10:30 LAUDIO
BOR-BOR JARDUNALDIK: INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO GAKOAK ETA TRESNAK MAHAI GAINEAN
Faktoria

10.04 Asteazkena

16:00 ARESKALDITZA
ZURE ARGAZKIAK
SMARTPHONEAN
MOLDATZEKO IKASTAROA
KZGunea

KIROLA

09.30 Larumbata

ARRANKUDIAGA-ZOLLO
ARRANKUDIAGA-ZOLLO
XX. MENDI IBILALDIA
07:00 // Mendilabialdia
19:30 // Trikipoteoa
21:00 // Afaria Gizarte Etxean eta gero The Pushermen taldearen kontzertua

09.30 Larumbata

LENDONOGOITI
GOIZALE
ATERPEAREN JAIK
9:30 // Lendoñotik irteera
11:00 // Auzolanak
15:00 // Bazkaria
17:00 // Herri kirolak
19:00 // Arrabio espedizioa
22:00 // Afari musikatua

09.30 Larumbata

16:30 AMURRIO
AMURRIKO II. XAKE
SUSTAPEN TXAPELKETA
16:30 // Umeentzako xakea
18:00 // Bowl erakusketa
18:30 // Txokolatea
19:30 // Diskotxiki
Bañuetaibarreko bowlean

10.01 Igandea

LENDONOGOITI
GOIZALE
ATERPEAREN JAIK

Euskaraz Bizi

jaia bi egunez
luzatuko da Laudion



Irailaren 29 eta 30ean egingo da Laudio Euskaraz Bizi jaiaren aurtengo edizioa. Ostiralean tailerrak, karaoke ibiltaria txokolate-jana, buruhandiak, film laburren emanaldia eta trikipoteoa egingo dira. Larunbatean, aldiz, Nafarroa kantu taldearekin kalejira egingo dute goizean, eta bazkaria egingo dajarraian. Arratsalde-gau partean amaituko da egitaraua, dantza plaza eta diskofestarekin.

Indarkeria matxistari

aurre egiteko gakoak eta tresnak
hizpide Faktorian



Datorren larunbatean, irailaren 30ean, Borbor Aiaraldeko Feminismo Faktoriak goiz osoan jardunaldiak antolatu ditu indarkeria matxistaren aurrean "ahalduntzeko tresnak eskaintzeko". Solasaldiak, aurkezpenak eta ikastaro praktikoa egingo dira eta haurrengunea eta itzulpengintza zerbitzu eskainiko dituzte.

Denetarik egingo da Borbor elkarrekin larunbat honetarako prestatutako jardunaldietan. Ekitaldiari hasiera emateko, bi solasaldi egingo dira. Lehena, Borbor elkarteko kide

den Iratxe Letonak eskainiko du: Indarkeria matxistaren aurka, non gaude? goiburupean. Jarraian, Hiruki Larroako kooperatibako Ibai Fresnedok hartuko du hitza. "Gizentasun eredu berrien beharraz eta garrantziaz" ariuko da *Eta gizonek zer?* izeneko solasaldian.

Eguerdian Aiaraldeko Ekintzen Faktoriak indarkeria matxistaren aurkako esku-hartzegida aurkeztuko du eta, segidan, ikastaro batetik ikasitako praktikatzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

Orozkoko Beraza auzoko jaiak,

ostegunetik igandera



Lau egunez luzatuko dira Berazako jaiak. Bihar -osteguna- botako dute jaietia hasiera emateko suziria, eta ostiralean ekingo diote egitarauari. Orozkoko auzoko jai batzordeko kideek ekinzta sorta oparora prestatu dute, eta gaua luzatzeko aukera emango dute ostiral zein larunbatean, The Smoke Dealers, Yogurinha Borova edota Joseli Anayaken kontzertuekin, besteak beste.

Igandean aldiz, Paella Txapelketaren XXVI. edizioa izango da egunaren ardatz. Bazkalostean emango diete amaiera jaietia, bingoarekin eta aukien jolasekin.

Mikel Deuna

irailaren 30ean Urduñan



Egun bakarra iraungo dute Mikel Deuna jaiak, baina ekintza sorta oparora prestatu dute. Kiko iturriaren inguruan egingo dituzte jarduerak guztiak: patata tortilla txapelketa, puzgarria, auzokideen argazkia, trikipoteoa, herri bazkaria, goitibera jaietsiera, txokolate jana, txapel jaurtiketa txapelketa eta elkartasun parrillada, besteak beste.

10.01 Igandea
OROZKO
BERAZAKO JAIAK
11:00 // Paella txapelketa
eta gaiteroak
12:00 // Meza eta gero
Ubixeta Dantza Taldeko
erakustaldia
13:30 // Paelen aurkezpena,
zozketa eta gero aukien
jokoa
Beraza auzoan

UMEENTZAKO
JARDUERAK

09.29 Ostirala
17:00 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIA:
TXORIA TXORI
Udal liburutegia

10:00 // Lendoñotik irteera
11:30 // Galanperna dastaketa
eta umeentzako jolasak
13:00 // Talde argazkia
13:30 // Bazkari herrikola
15:00 // Abesbatza

BESTELAKOAK

10.05 Osteguna
18:00 LAUDIO
ASVIAMIE AIARALDEAREN
BILERA IREKIA
Laudioko Herriko plazako
erabilera anitzeko aretoa

INFO +
aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean
eguneko edukiak,
688 848 152 zenbakira
AIARALDEA GAUR
mezua bidalita!



Batu Telegramera
t.me/aiaraldea
esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



kultura



Iñigo Martínez, bere liburua eskutan duela. Aiaraldea.eus

Bizitza bat, ez tragedia hutsa

Iñigo Martínez Sagastizabalek *Una quimera de vida* liburua argitaratu du. Kutsu autobiografiko handiko eleberriak osteogenesis inperfektua duen nerabe baten bizipenak azaltzen ditu, epika zein dramatismoz ihes eginda.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Ekainean argitaratu zuen Iñigo Martínez Sagastizabalek *Una quimera de vida* eleberria. Nobela izanda ere, eta bere protagonista Bruno izeneko nerabea, Iñigok berak bizitako esperientziekin josita dago liburua: “Bruno fikziozko pertsonaia da, nire patologia bera duen mutila. Egia esanda, asko oinarritzen da nire bizipenetan. Batzuk asmatu egin ditut, beste batzuk txikitu... Ez nuen autobiografia bat idatzi nahi, nire burua babesteko eta inguru-koak ere”.

Zehazki, kontakizunaren ardatza da Brunok biziko duen iraultza aulki gurgilduna agertzen denean bere bizitzan. “Bat-batean, aurreiritzi asko dituen tresna bat lortzen du, gurgil-aulkia. Berak, hasieran, gaixotasunarekin edo zahartzaroarekin erlazionatzeagatik, baztertu egiten du. Baina gero bertan esertzen da eta mundu oso bat irekitzen zaio, tresna ortopediko batzuek jendea hegan eginarazten dutelako eta protagonista librea delako. Ezin ibiltzeak ez du esan nahi ezin denik bizi”, nabarmendu du egileak.

Hain zuzen, bizitza da eleberraren muina. Aniztasun funtzionala duen gizaki baten bizitza. Iñigo Martínez Sagastizabalen aburuz, Bruno ez da ez heroia, ez gizagaixoa, bizi nahi duen pertsona soilik. Modu horretan, idazleak aldarrikatu nahi du aulki gurgildunean egoteak ez dela esan nahi tragedia baten erdian bizitzea. “Zailtasunak daude, baina une dibertigarriak eta politak ere”, argitu du.

Horrela, idazlearen hautua izan da bere patologiar eta aniztasun funtzionalari buruz naturaltasunez hitz egitea: “Ez daude idatzizko erreferentzia asko nire gaitzari buruz, medikuntza literatura kenduta”, gaineratu du.

Oztopoak oztopo eta arazoak arazo, *Una quimera de vida*-ren

motorra Brunoren askatasuna da. Behin aulki gurgilduna eskuratu, bere etxetik harago hasiko da esploratzen, eta ez bakarrik zentzu geografikoan, gehienbat, emozioen eta sentimenduen aurkikuntzek astinduko dute: bere kontraesanak, maitasuna, lehen kontzertua, lehen jaiak, adiskidetasuna...

Apurka-apurka, munduari buruz gehiago jakingo du protagonistak, gizartean kokatzen eta bere buruari aurre egiten, baita barruan dituen aurreiritzietan ere. Pasarte horietan guztietan ez dira faltako une umoretsuak edota ezusteak, adibidez, Brunok La Polla Record-sen kontzertuan izandako estualdia.

Urte bakarrean gertatuko da dena, eta bizipen berriekin batera, flashbackak agertuko dira han-hemenka, kontakizunari sakontasun gehiago emateko eta gaztearen ibilbidea deskribatzeko: haurtzaroa, ospitaleak, eskola...

Liburu erraza eta azkarra

Testuaren bertuteen artean egileak aipatu du modu errazean eta dinamikoan idatzi duela: “Irakurle askok esan didate egun gutxitan amaitu dutela. Egia da Laudiok pisua duela eta jende batek esan didala pasarte batzuk oso errealek direla, baina ez diot gehiegi erreparatu xehetasunez deskribatzeari”.

Etorkizunean eleberri gehiago argitaratzea ez du baztertzen Iñigo Martínez Sagastizabalek eta dagoeneko beste istorio bat dauka buruan. “Ez dakit Bruno edo beste pertsonaia bat izango den protagonista, baina gustatuko litzaizkidan gai politikoagoak jorratzea, sexualitatea, dantza, artea... Duela zortzi urtetik hona Bartzelonan bizi izan dudana guztia, emozio piloak. Dibertsitate funtzionalean sakontzen jarraitu nahi dut, oztopo askori aurre egiten dien errealitatea baita, baina baita une zoragarriak ere”.

Oscar sarien lehiatik kanpo geratu da Esti Urresolaren pelikula



20.000 especies de abejas filmaren aurrestreinaldia Bilbon. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Atzo jakinarazi zuten *La sociedad de la nieve* izango dela Espainiako estatuko ordezkaria Oscar Sarietan. Juan Antonio Bayonaren filmak ekoizpen gehiagotan landutako gertakaria islatu du Netflixentzat sortutako lanean, hau da, Uruguayko errugby talde batek Andean izandako hegazkin istripua, *Alive!* pelikulan ere jorratutakoa, esaterako.

Bayonaren hautaketarekin bi zuzendari euskaldun geratu dira sarien hurrengo fasetik kanpo: Esti Urresola eta Victor Erice.

Urresolak berak adierazi zuen azken hautagaien artean egotea nahikoa zela berarentzat. Izan ere, ezin da ahaztu audioarraren proiektua zinema independentea dela eta oso urrun iristen ari dela aurrekontu apalarekin.

Gainera, nazioarteko sari gehiago eskuratzeko aukera dauka Urresolak, eta lasterketa horretan Victor Ericerekin egongo

da berriro, nor baino nor. Zehazki, Europako Zinema Akademiako aitortzetan izango da. Urresolarentzat ohorea izan da 18 hautatuen artean egotea, Victor Ericen barne.

Horrez gain, audioarrakizendapen gehiago metatu ditu. Aitortza horiek Europako Parlamentuenak dira eta balio europarren unibertsaltasuna eta aniztasuna islatzen duten filmek jasotzen dituzte. Urresolarekin batera badago Aki Kaurismaki ere, besteak beste.

Zinemaldian

Aipatutakoaz gain, *20.000 especies de abejas* pelikulak erronka berria izan zuen iragan astean, Donostiako Zinemaldiko Zinemira Saila inauguratuko baitzuen.

Halaber, 150.000 ikusle erakarri eta gero Espainiako estatuko zinetetara, edukia plataformetan ikusgai dago abuztutik eta DVD eta Blu Ray euskarrietan ere badago irailaren 12tik.

Leire Sanjurjo eta Iratxe Bilbao Bigarren azala ekimeneko protagonista

Testua
Jone Gartzia Gerra

Leire Sanjurjo eta Iratxe Bilbaoen lana da Kulturlab ekimenaren *Bigarren Azala* proiektu artistikoko 15. esku-hartzea. Iazko udazkenean Patas de Gansa kolektiboa sortu zuten bi dantzariak, eta *Larriak Azpian* obra garatzeari ekin zioten. Aiaraldea Ekintzen Faktorian egindako interpretazioaren hainbat irudi plazaratu dituzte Zumalakarregi etorbidean eta Zubiko Kurajo kalean, eta hilabete amaierara arte egongo dira ikusgai.




Euren proiektuaren irudiekin murala osatu dute bi dantzariak. Kulturlab

Aiaraldea TikTok-en

BIDEO BERRIAK ASTERO IKUSI ETA HARPIDETU!



WWW.TIKTOK.COM/
@AIARALDEA



WWW.AIARALDEA.EUS



2023-24 MATRIKULAZIO EPEA IRAILETIK AURRERA ZABALIK



1kaskin 5, Audioko Industrialdea (Audio) Gardeako tren geltoki alboan 699 88 35 63

kultura

Iragan ostiralean taularatu zuten Kuluxka antzerki taldeko kideek euren sorkuntza berria, Orozkoko Donibane Aretoan. Komedia musikalaren bidez jorratu dituzte genero indarkeria eta ahalduntzea bezalako gaiak.

Kuluxka antzerki taldearen obra berria, taula gainean



Testua
Jone Gartzia Gerra

Laia Laudiok 2022an Lezeaga Etxean antolatutako emakumeentzako antzerki eskolen emaitza da *Vamos a ser un poco más brujas*. Izena ere, Lezeagako sorginaren omenez jarri zioten obrari, hartara inauguratu berria baitzen Laudioko emakumeen hausnarketa eta bilgunerako espazioa.

Orozkoko Kuluxka antzerki taldeak gidatu zuen ikastaroa eta bertan parte hartu zuten emakumeek David Baskaran eta Enkarina Delgadoren laguntza izan zuten antzeztanaren gidaria eta eszenografia osatzeko. Martxoaren 8ko astean estreinatu zuten lana Laudioko Kasinoan eta bertan Claudia Verdecchia txotxongilolaria eta Ana Mas jantzigilearen laguntza ere izan zuten.

Kuluxkako kideen arabera, antzeztanaren "izugarritzako arrakasta" izan zuten, antzeztanaren ezagunak zirelako herrian eta publikoak ikusi ahal izan zuelako "antzerkiak haiengan eragin zuen aldaketa". Horrela, Parekide elkarteak antzeztanaren Bizkaiko hiru herritan aurkezteko proposamena luzatu zuten, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasunerako dirulaguntza bati esker.

Horrela sortu zen Orozkoko Donibane Aretoan *Vamos a ser un poco más brujas* erakusteko aukera. Iragan ostiralean egin zuten emanaldia eta antzeztanaren ostean solasaldi bat antolatutako aktoreekin eta moderatzaile batekin. Hurrengo zitak Arrigorriagan eta Areatzan izango dituzte.

Antzerkia mundua aldatzeko

Kuluxka antzerki taldearen helburua artearen bidez eraldaketa soziala sustatzea da. Diziplina artistiko anitzak baliatzen dituzte publikoarekiko gertuko atmosfera sortzeko eta, era berean, "kritika soziala egin" eta "genero eta zapalkuntza guztiak gaindituko dituen ehun soziala" eratzen laguntzeko.



Obraren entseguetan eginiko hainbat argazki. Kuluxka

Horrela, analisia eta ikerketa baliatzen dituzte errealitatea aztertu eta artearen eta komunikazioaren bidez islatzeko modu "erraz, zorrotz eta parte-hartzailean", oinarri hartuta "genero desberdinkeria, ingurumen arazoak eta eskubideen urraketak". Hainbat ekintza artistiko gauzatu dituzte, tartean, Performance *Inquisition* eta *Llueven Vacas* antzeztanaren edo Emakumeen De Repente antzerki inprobisazio ikastaroa.

Ahalduntzeko antzerkia

Laia Laudiok antolatutako emakumeentzako antzerki ikastaroaren fruitu da bihar Orozkon herriko antzerki taldeak aurkeztuko

Amurrio, Orozko, Urduña, Artziniega, Okondo, Aiara eta Laudion egingo dituzte jarduerak

duena, eta datorren urtean ere tailerra errepikatuko dutela jakinarazi dute.

Iragan astean Aiaraldeko ahalduntze eskolak aurkeztutako egitarauaren barne dago aurtengo lantegia jasota. Urtarrilaren 10ean hasiko dira 16 urtetik gorako emakumeei zuzendutako antzerki eskolak, asteazkenero 18:00etatik 20:00ak bitarte Laudioko Lezeaga aretoan.

Datorren urtean patriarkatuaren eta matxismoaren ondorioak taularatu nahi dituzte Miguel Llorente Acostaren *Autopsia al machismo* (Editorial Comares, 2020) liburuaren egokitzapenaren bidez. Ikastaroa Kuluxkak dinamizatuko du eta iaz parte hartu

zuten emakumeei zein interesa duen orori dago zabalduta. Laudioko Berdintasun Zerbitzuarekin jarri beharra dago harremanetan izena emateko (944 03 48 50 telefonoan edo laialaudio@ludio.eus helbide elektronikoa), eta Orozkoko antzerki taldearen arabera, "plaza gutxi daude eta ezin dute galdu".

Izan ere, antzeztan ondo pasatzeaz gain, emakumeek autoestimua eta sozializazioa ere lantzen dute. "Emakumeekin lan egiten duten hainbat elkarte gurekin jarri dira harremanetan obra ikusi ahal izateko eta terapia moduko honetan parte hartzeko", azaldu dute Kuluxka antzerki taldeko kideek.

Iragan astean egon ziren Bruselako YouYou Group taldeko bi kide hainbat irrintzilari aiaraldearrekin ahots esperimentazioan lanean. Ahots praktika tradizionala oinarri hartuta kultur pieza bat sortuko dute urrian errepikatuko duten egonaldian, eta ostean Bruselara eramango dute.

YouYou&Irrintzi sormen laborategien lehen egonaldia bete dute Faktorian



Testua
Jone Gartzia Gerra

Iragan asteko astelehenean egin zuten Bruselako YouYou Group ahots taldeko Anissa Rouasek eta Caroline Daishek Kultur Faktoriarekin batera YouYou&Irrintzi proiektuaren aurkezpena. Hurrengo bi egunak irrintzien eta askotariko oihuen bidez ahots esperimentazio praktikak egiten eman dituzte, eta taldea “oso gustura” egon da, antolatzaileen hitzetan.

Kultur Faktoriako kideek azalduta, bi egunotako ariketa nagusia taldea sortzea eta elkar eza-gutzea izan da. Izan ere, askotan “modu protokolarioan” egiten bada ere, “oso garrantzitsua” da praktika artistikorako. Hori horrela, parte-hartzaile bakoitzaren historia pertsonala kontatzen eman dute jardunaldien denbora tarte handi bat: ahotsarekin duten harremana kontatu dute, lehen irrintzia noiz bota zuten azaldu dute, non ikasi zuten irrintzika, zer esanahi duten haien izenek...

Astearte eta asteazken arratsaldean hainbat ahots praktika egin dituzte, gorputzarekin, sentsazioekin eta, batez ere, espazioarekin jolastuz. Faktoria osotik ibili dira irrintziak eta askotariko soinuak hara eta hona botatzen, bilatzen... eta beste begirada batekin jantzi dute ahots praktika tradizionala.

Anissa Rouasek eta Caroline Daishek gidatutako dinamiken bidez ahotsarekin jolastu eta esperimentatu dute, betiere beroketari eta hidratazioari beharrezko arreta eskainita, ahotsa zaintzea ezinbestekoa baita harekin jolastu ahal izateko.

Gidariak proposatutako ariketen bidez, irrintzi partiturak irudikatzen sinbologia sortu dute, esperimentazioa paperera igartzeko tresna gisa. Taldekide guztiek berdin irakurtzeko moduko sinbologia bat osatu dute.



Laborategiaren bi saio egin zituzten Faktorian iragan astean. Aiaraldea.eus

Lan saioetan proposatutako beste erronketako bat sonoritate gutxiko irrintziak botatzearena izan da. Irakasleek parte-hartzaileei proposatu zieten intentsitate baxuko irrintziak bota zitzatela, eta horrela aritu ziren, inoiz imajinatuko ez zuketean ariketan murgilduta.

Azken lan saioaren bukaeran balorazio bat egin zuten elkarrekin adosteko zer landuko duten urriko praktika egunetan. Gaine-

Aiaraldearren azaroan joango dira Bruselara, eta Faktorian sortutako pieza aurkeztuko dute bertan

ra, irailean parte hartu duten irrintzilari gehienek adierazi zuten urrian jarraitzeko asmoa, eta horietako hainbatek ere aipatu zuten azaroan Bruselara joatea gustatuko litzaiekeela.

Urrian osterera ere

Datorren hilean bigarren laborategi saioa egingo dute Faktorian, 11tik 15era. Orduan, YouYou Group-eko kide gehiago etorriko dira Bruselatik eskualdera. Urriko

egonaldia taldeak sortuko duen ahots-performance pieza batekin amaituko da, baina ez da Youyou&Irrintzi dinamikaren azken ekimena izango. Izan ere, azaroaren 2tik 4ra aiaraldearrak izango dira Bruselara joango direnak, eta han ere izango dute pieza hori erakusteko aukera. Gurean, osterera, urriaren 15eko arratsaldean egongo da Irrintzien azpitik emanaldiaz gozatzeko aukera.

kirola

“Oñatin oraindik ez nuen sinesten, galtzera ohituta bainago”



OÑATIKO 63. NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA OSPATU ZUTEN IGANDEAN ETA **FIDEL ALONSO** ARETARRA ETA BERE LIS TXAKUR GAZTEA GAIENDU ZIREN HAMAIRU PARTE-HARTZAILEREN ARTEAN.



Testua **Aitor Aspuru Saez**
Argazkia **Golena**

Zer moduz joan zen igandeko txapelketa?

Banekien Oñatira herrialde bakoitzeko txakurrik onenak joaten direla. Lehiatzean denak du eragina: zorteak, zozketak, nerbioek ez zaitzela menderatu... Batzuetan argi dugu irabazteko baldintzak ditugula, baina edozer gauza garesti ordaintzen da: ardi baten mugimendu txarra, pixkak atzeratuta egindako agindu bat, edozein akats.... Zentzu horretan ondo joan zitzaigun eta zortea izan genuen.

Espero zenuen irabaztea edo maila oso altua zela iruditzen zitzaizun?

Maila altua zen. Batez ere *border collie* txakurren aurka lehiatzea latza da, ondo merezitako cachea dutelako. Oso ondo eta oso azkar ibiltzen dira, baina Oñatiko ardiek aldea handia markatzen dute. Nik badakit gure txakur gorriak abere bolumen hori mugitzeko baldintzak dituztela; izan ere, ardi horiek aurre egiten diete txakurrei, eta nik txakur on bat nuen. Nire txakurrak urtebete eta zortzi hilabete ditu. Ni artzaina naiz eta egunero ibiltzen naiz nire ardiekin. Nire txakurra ikusi dut egoera zailtan aritzen eta ganadua estu mugitzen, ez du ia hozkarik egiten eta ondo egiten du zaunka ardiak mugitzeko. Zentzu horretan, iruditzen zitzaidan egun horretarako besteek baino baldintza hobeak zituela.

Ganadu bolumen txikiagoarekin, *border collie* aukera gehiago izango lituzkete?

Bai, asko mugitzen diren ardi gutxiagorekin egiten dutelako lan. Txakur horiek ikusmenarekin egiten dute lan eta

oso azkar mugitzen dira, beti ari dira mugitzen diren ardiekin, eta asko kontrolatzen dute. Igandean, beroaren eraginez, ardiak oso geldirik zeuden eta ez zioten jaramonik egiten txakurrari, so geratzen ziren. Txakurra ez bazen nagusitzen, ez ziren mugitzen. Beste baldintza batzuetan, desberdina zatekeen.

Adibidez, iazko txapelduna azkenetakoa izan zen atzo, ez zelako gai izan ardiak lekuz mugitzeko. Ardiek aurre egiten zioten, txakurak ezin zituen mugitu eta artzainak ez zituen ariketa egokiak aurkitu, eta hori hainbati gertatu zitzaizen.

Txapelketa zaila izan zen?

Bai, oso gogorra. Ardiek nabarmen markatu zuten aldea. Ibilbideari dagokionez, Euskal Herrian egin ohi ditugun probak beti dira berdinak, baina ardiak desberdinak dira, eta kasu honetan Oñatin asko markatu zuten aldea.

Zure aurkariak ez ziren Euskal Herrikoak bakarrik, ezta? Beste herrialde batzuetatik ere joan ziren.

Bai, Behe Nafarroatik, Mallorcatik, Castello eremutik, Tarragonatik... etorri ziren. Zazpi *border collie* eta bertako sei txakur egon ziren.

Baten bat aurkari zuzen gisa identifikatuta zenuen?

*Border collie*ak. Iaz *collie* batek irabazi zuen, aurreko urtean ez, eta azken aldiran Nafarroatik ere etortzen ziren *border collie* batzuk oso ondo lan egiten dutenak. Egia da guk ere baditugula gure txakurrak eta ondo lan egiten dutela.

Zure txakurrak urtebete eta zortzi hilabete dituela esan

duzu. Ohikoa da hain txakur gazteak maila honetan lehiatzea?

Aurten, abuztuan, inoiz lehiatu ez diren txakurrentzako proba batera eraman nuen. Etxean egunero ibiltzen naiz ardiekin eta ondo egiten du lana, baina ez da gauza bera etxean aritzea edo proba batean, jendearekin, zaratarekin, estimulu askorekin, bereak ez diren ardiekin... Egunerokoan ikusten dut txakurra ez dela jendearekin beldurtzen, ondo jokatzen duela, eta hala erakutsi du lehiaketetan ere: Araban lehenengo geratu nintzen berarekin, Euskal Herrian hirugarren geratu ginen, eta honetan zortea izan dugu eta irabazi egin dugu.

Ezustean harrapatu zaitu garaipenak?

2007an joan nintzen lehen aldiz Oñatira txakurrarekin, eta puntu batengatik galdu nuen; arantza sartuta neukan. Txakur guztiak onak dira eta faktore askok eragiten dute. Ia azkenetakoa atera ginen, besteek zer egin zuten jakinda eta presio handiagoarekin, baina txakur on bat nuela jakinda. Zortea nire alde izan nuen eta hori ere eduki behar da.

Mugarri honen ondoren, baduzu beste helbururik?

Niretzat Oñatiko txapela lortzea da irabaz daitekeen gauzarik handiena, nazioarteko txapelketa baita. Gu Arate Arabako artzain-txakurren elkartean gaude, jendea txakurrekin lan egiteko modu hau erakusten saiatzen gara eta egiten duguna ondo egin nahi dugu. Artzaintza kalera eramaten dugu jendeak ikus dezan tradizio horri eutsi behar zaiola. Ezin dugu askoz gehiago egin, egiten duguna ondo egin, animaliekin kontaktu ona izan, txakurrak ondo porta daitezten eta jendea pozik gera dadin.

babestutako edukia

Arte HARTZE ZIKLOA

2023

URRITIK
ABENDURA

SORMENA
HOSTOZ
HOSTO



BABESLEA

araba álava
foru aldundia diputación foral

LAGUNTZAILEAK

EIE Euskal Idazleen Elkartea



Flanders
State of the Art

newpolyphonies

MIREN NARBAIZA, ITZIAR GARALUCE, PATXI ZUBIZARRETA, AMAIA BONO, EDU ZELAIETA, THE YOUYOU GROUP, METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA, ROUGE ELEA KONPAINIA, PATAS DE GANSA KOLEKTIBOA, MEJILLON TIGRE... ETA GEHIAGO!

BONOAK SALGAI 35€
KULTURFAKTORIA.EUS



kirola

Goiz izugarri bizia izan zen iragan igandekoa Urduñan, herri krosari esker. 230 kirolari inguruk parte hartu zuten 10 kilometroko lasterketan, baina parte hartze kopurua biderkatu zen proba paraolimpikoarekin eta umeen ibilbideekin.

Adin guztietako ehunka lasterkari Urduña Hiria Herri Krosean



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Urduña Hiria Herri Krosa probaren XVII. edizioa jokatu zen iragan igandean. Foru Plaza izan zen irteera eta helmuga puntua eta bere inguruan aritu ziren kirolariak zein ikusleak.

11:30ean 10 kilometroko ibilbidean izena eman zuten 230 lastekari atera ziren eta lehen hiru sailkatuak Brahim El Asri,

Alberto Díaz Domínguez eta Amine Bougrine izan ziren. Hala ere, lehenengo postuak zein sailkapen gehiena aiaraldez jositakoak egon zen.

12:40an, ordea, kirol paralinpikoaren txanda heldu zen. Javi Conde taldeko hainbat atleta kokatu ziren irteera marran eta klubak egiten duen lanagatik Condek berak omenaldia jaso zuen sari banaketan.

Horien ondoren, dena den,

oraindik ehunka korrikalari zeuden euren orduaren zain, eta eurekin senideak zein lagunak. Izan ere, hurrengo bi probak txikiena eta mini-txikiena izan zen, zeinetan gazteek, eta batzuetan gurasoek ere, bete zituzten ibilbideak.

Amaitzeko, lehen hiru sailkatuak aitortu ez ezik, emakumezko azkarrenak edota Urduñako lehen sailkatuak ere saritu zituzten.



kirola



kirola



Aingeru Olabarrieta kamiseta txuri-gorriarekin, partidu batean. Athletic Club

Aingeru Olabarrieta, Luiaondon hazten ari den lehoia

Aingeru Olabarrieta luiaondoarra Athletic Clubeko filialeko jokalaria bilakatu da denboraldi honetan. Ohorezko gazte taldetik jauzia egin duen kirolari bakarra da eta etorkizunak esango du noraino heltzen den. Hasi berri du denboraldia eta partidu bat osorik jokatu du dagoeneko.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Aingeru Olabarrieta 2005ean jaio zen eta Luiaondon hazi da. Familiak dionez, oso goiz hasi zen ibiltzen eta berehala ikusi zuten futboleko ondo jokatzeko zuela. Saskibaloia ere gogoko zuen eta aiara bola jokoa zenbait txapelketa irabazi ditu -bere aitaren familiak kutsatutako interesa da-, baina futbola izan da bere benetako obsesioa txikitatik. Horrela, herriko zein Laudioko futbol zelaietan ondo pasa ostean, Etorkizuna klubean sartu zen izugarri gazte, bost urte zituelarik.

Amurrioko taldearekin lan txukuna egin zuen eta familiak sumatu zuena identifikatu zuen Athleticen ere, nahiko azkar gainera. Ondorioz, teknifikazio saioetan parte hartzeraz gonbidatu zuten. Hala, luiaondo-

rra Etorkizunako jokalaria zen astean zehar, baina igandeetan Athleticen aginduetara zegoen bere ezaugarriak eta gaitasunak hobetzeko.

Antza, entrenamendu horietan ere ondo egin zuen, bederatzi urterekin bilakatu baitzen Ibaiganeko klubeko jokalaria. 2015ean hartu zuen Athleticen bere egituraren eta geroztik kategoriaz kategoriaz aurrera egin du Olabarrietak: kimu, haur, kadete eta gazte taldeetan aritu da eta indarrean dagoen denboraldian Bilbao Athleticen dabil.

Filialean zuzenean sartzea, berez, bada lorpena. Izan ere, jokari gehienek ohorezko gazte taldea uztean Baskonian jokatzeko dute. Ez da Aingeru Olabarrietaren kasua izan, zeinak bigarren taldean lekua topatu duen jadanik, egitura teknikoak aurreko denboraldiko balorazioak egin ostean.

Athleticeko arduradunen arreta erakarri ez ezik, Espainiako Selekzioarena ere piztu du. Izan ere, aurreko denboraldian 18 urtez azpiko selekzioak deitu zuen Turkian txapelketa bat eta Suitzian zenbait lagunarteko partida jokatzeko. Irailean, ordea, 19 urtetik azpiko selekzioarekin aritu da Alfas del Pin (Alacant) entrenatzen.

2023/2024 denboraldia

Denboraldia hasi berria bada, lehenengo hiru partidetan bat osorik jokatu du Olabarrietak 2. RFEF kategorian gogorrean, non futbol fisikoak agintzen duen. Klub beteranoak -Barakaldo, Logroñes, Arenas edota Gernika- ez daude prest puntuak oparitzeko eta norgehiagoka bakoitzak gudu zelaia bilakatzen du joko eremua.

Erronka ez da batere makala izango luiaondoar gaztearentzat, zeina hegal aurrelari

Datozen denboraldi kritikotik argituko da noraino helduko den gaztea

tekniko gisa deskribatzen duten athleticzaleek. Berez, futbol kategorian horretan ez da filigranarako eremua, baizik eta talkarako. Edonola ere, aurrera egiteko ezinbesteko urratsa da hau eta radar ugartan egoteko balioko dio jokariari. Senideek ziurtatzen duten moduan, aurrelariaren helburua da Athleticen lehen taldearekin jokatzeko noizbait, eta ezinezkoa da hori filialetik igaro gabe.

Momentuz, eta oso gazte izanda, luiaondoarra bada bere izena futbolaren munduan kokatzen eta Transfermarkt webgune ospetsuak 25.000 eurotan baloratu du jadanik.

Datozen denboraldi kritikotik argituko da noraino helduko den gaztea, baina bitartean berak ez du burua galtzen eta Sarrikon ekin dio Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua ikasteari.



HEZKUNTZA ATELIERRAK



arte plastikoak

Marrazketa, buztingintza,
kale-arte, serigrafia...

NOIZ? astelehenero
ORDUTEGIA? 17:15-18:30



gorputz adierazpena

Dantza, antzerkia, zirkoa...

NOIZ? asteartero
ORDUTEGIA? 17:15-18:30



hitzaren atelierra

Irratia, egunkaria, argazkigintza,
ipuinak, bertsoa...

NOIZ? asteazkenero
ORDUTEGIA? 17:15-18:30



natur atelierra

Sukaldaritza, sendabelarrak,
baratza...

NOIZ? ostegunero
ORDUTEGIA? 17:15-18:30

PREZIOA

BAZKIDEAK hilabetea 26€/haurra · EZ-BAZKIDEAK hilabetea 35€/haurra
*3x2: Bi atelietan apuntatu ezker hirugarren atelierra doanik

BALDINTZAK

Plazak mugatuak dira · Taldea sortzeko 8 lagun behar dira
Saioak urritik maiatzera izango dira (ekainera luzatzeko aukerarekin). Apuntatzen dena urte guztian parte hartzeko ardura hartzen du
Hilabetero berdina ordainduko da, hilabete horretako saio kopuruak kontuan hartu gabe. Guztira 30 saio egingo direlarik.
Baja emateko hilabete bateko aurrerapenarekin abisatu beharko da.

IZENA EMATEKO

www.faktoria.eus webgunean edo 722 22 75 32 telefonora deituz.



kirola

BOLA JOKOA

Bea Isasik eta Alberto Lopezek irabazi zuten Udako Bola Txapelketa



Irabazleak eta antolatzaileak txapelketako sariekin.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udako Bola Txapelketa jokatu zuten aurreko bi asteburuetan 50 bolarik baino gehiagok. Horien artean Aiaraldeakoak eta kanpoak egon dira. Antolatzaileak oso pozik agertu dira emaitzekin. Irabazleak Alberto Lopez eta Bea Isasi izan ziren, baina berdintasuna izan da nagusi.

Izan ere, Ruperto Urkijo Bolatoki Elkarteko presidente Oskar Larrazabalek nabarmendu duen bezala, puntuaketak erakutsi du pareko maila du-

tela bolariet. Aiarako bola jokoak sustatzen eta praktikatzen dutenen hurrengo hitzordua urriaren 7an izango da, eskualdeko LVIII. txapelketa jokatzeari ekingo baitiote egun horretan.

Lehenengo asteburuetan partidek erabakiko dute zein izango den sailkapena eta emaitza horiek aintzat hartuko dituzte lehenengo hamasei sailkatuen kanporaketak jokatze eta lehen zortzi bikoteen artekoak lehiazteko.

Abenduaren 9ko arratsaldean izango dira finalak bi kategorietan.

PADELA

Laudioko padel liga, abian

Testua
Aitor Aspuru Saez

Irailaren 17an amaitu zen Laudioko Padel Ligan izena emateko epea. Tokiko padel klubak abiatu du ideia eta asmoa da "padela praktikatzeko duen edonork jokatze aukera izatea", Aintzane Garciak azaldu duenez.

Berez, klubak antolatu dituen beste proba batzuetan bezala, parte hartzea mistoa izango da generoaren aldetik. Hau da, ez da egongo emakumezkoen eta gizonezkoen ligarik, guztiek jo-

katuko dute txapelketa bera. Tokiko liga ez ezik, haurrentzako eta emakumeentzako klaseak ere antolatuko ditu padel klubak, emakumezkoen kirola sustatzeko, besteak beste.

Elkarteko kideek duten arazoa, ironikoki, kirolak duen arrakasta da. "Bi pista baino ez daude Laudion. Jende ugari jokatzen dugu eta astebete lehenago erreserbatu behar ditugu. Saiatzen ari gara Udalarekin adosten igandean ere kantxak horretara bideratu ahal izatea, itxita baitaude", adierazi du Garciak.

ESKALADA

Jende ugari parte hartu du Urduñako boulderraren inaugurazioan



Jende ugari bertaratu zen larunbat goizeko ekitaldira. **Txarlazo Mendi Taldea**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Txarlazo Mendi Taldeko eskalada atala pozik geratu da aurreko larunbat goizean egin zuen Boulderraren irekierarekin, herriar pila bertaratu baitzen. Modu horretan, bukatutzat eman dute 2021eko ekainean abiatutako prozesua. Izan ere, duela bi urte baino gehiago hasi ziren lanean eskalada ataleko kideak boulder edo rokodromoa prestatzeko ideiarekin.

Eraikina, berez, udal higiziena da eta tokiko erakundeak laga die lokala, Lanbide Heziketako ikastetxe ohiaren sotoan. Astelehenetik aurrera egongo da erabiltzaileen esku kirol azpiegitura -irudian ikus daitekeen rokodromoaz gain, gimnasio txikia ere badago- eta bi aukera egongo dira: edo mendi taldeko bazkide egitea edo eguneko sarrera erostea. Biak webgunean (www.txarlazo-m-t.webnode.es) kudeatu beharko dira astelehenetik aurrera.

Giltzak Lupardika tabernan edota Alondegian jaso beharko dituzte kirolariak.

Ohiko jardura horretaz aparte, bestelako helburuak dituzte Txarlazo kideek: "Boulderraz aparte, eskalatazailentzako bilgune bat izatea nahi dugu, eta hurrengo hilabeteetan ikastaroak, umeentzako ekintzak eta irteerak egin nahi ditugu". Eskalatazailak zorianekoak dira eskualdean, aurtur Urduñako boulderra ez ezik, martxoan Laudion ere ireki zuten eta.

PADELA

Okondo Cup txapelketa oso arrakastatsua izan zen

Testua
Aitor Aspuru Saez

Okondo Cup txapelketak jende andana eraman zuen herriko kirol azpiegiturretara. Zazpiko futbollehiaketak hamasei klub hartu zituen. 2012an jaiotako artean Peña Galdames izan zen txapelketa, SD Leioa bigarrena, Etorkizun hirugarrena eta Santutxu laugarrena.

2013an jaiotako gazteen kategorian, ordea, Santutxuk irabazi zuen, SD Leioa izan zen bigarren, Barakaldo hirugarren eta Lagun Artean laugarren.



16 klubek hartu zuten parte kirol topaketan. **Okondo Cup**

herriko plaza



Hui

Zorionak nagusi txit maitagarria!
Excell artean ospatuko dugu!

Lankideak



BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 11n argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

			7				4	6
	4	8			2		3	
7	9		3	6	4			
3		9		7		2		4
	6			2	3	5	8	
			5				7	3
8		5	2			4		
							5	
	2	3		9				

ZAILA

			3		6	7		
		4	9	1				
6	3		4				9	
4		1		6	7	2	8	
		3						
7							6	
							3	
5			7			6		4
				4			7	2

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Igor Arzuagaren lehen olerki liburuaren ale bat zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Igor Arzuagaren *De espantapájaros y escarcha* liburuaren ale baten zozketa Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Urriak 6, 12:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

TXIKITZEN ZARETENEAN

Idazlea: Uxue Alberdi eta Aitziber Akerreta

Argitaletxea: Pamiela

Paperak trukatu eta, loak hartu aurretik, umeek gurasoei kontatzeko ipuina da hau. Gauza txikien plazera. Txikien lezio handia, handiak txikitzen direnerako.



FEREKA

Idazlea: Libe Argoitia eta Maria Oses

Argitaletxea: Autoedizioa

Adina: 12 urtetatik gora

Testuak Maria Osesenak dira; ilustrazioak, berriz, Libe Argoitiarenak. Gai desberdinak jorratzen dituzten poesiak dira; egunerokotasunari buruzkoak; heriotza, kontraesanak... ez dago gai zehatzik.



JOLAS GUNEA

MIHI-BERO

Oraingoanetxekonerabeeizuzendutako mahai joko batekin gatoz, MIHI-BERO. Gorputza deskubritzeko, ezagutzeko eta zaintzeko modu bakar bat baino gehiago dagoelako, eta baita desirak bizitzeko, sentitzeko, fantasiatzeko ere. Txatxilipurdi Elkartearen gai hauei buruz libreki hitz egiteko tarreak sortu eta zentzuzko kritikotasuna sustatzeko asmoz MIHI-BERO jolasa sortu zuten. Sexualitatearen eta feminismoaren inguruko gai desberdinak jorratzeko, sakontzeko eta eztabaidatzeko.

Lau jokalaritik gora jolasteko jokoa da. Trivial moduko bat da, baina galderak sexualitatean edota genero aniztasunean oinarrituta daude. Noraino sakondu? Jokaldi bakoitzak esango digu, baina jolasa ikaskuntza bihurtzeko mihiak astindu beharko dira ezinbestean!



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Araukak

Azken bolada honetan arauen inguruan hausnartzen ibili naiz. Izan ere, arau hausten beldurrak zenbatetan mugatzen du gure jakin-mina? Txikitatit elkarbizitzara bideratuta dauden aitzakiapean, arauen menpe bizi gara. Eskolan? Araukak. Etxean? Araukak. Eskolaz kanpoko ekintzetan? A-r-a-u-a-k. Aurrekoan herriko txikiekin elkartu nintzen eta ikasturte hasieraren inguruan galde-tu nien. Zelan eskolan? Ondo? Baaiiii buenoo badakizu, eskolan isilik eta bakoitza bere lekuaan egon behar gara eta guri asko kostatzen zaiguuu. Helduen jarrera aspergarriak dituzten umeak nahi ditugu? Arauez hitz egiten dugunean, uste dut oso garrantzitsua dela erdigunean jartzen den ongizateari erreparatzea. Umeei inposatzen zaizkien arauak ez al daude helduen mesede eraikiak? Hori dela eta, zeharkako modu batean, etengabe haien gainetik kokatzen den norbaiten arauak errespetatu behar dituztelako mezua zabaltzen gaude. Honekin batera beldurraren kultura zabalduz, arau hausten beldurra bilakatzen delako haien jarreraren gidari.

Haurrek, berez, hazkunde-adinean arakatzeko sena garatzen dute, ikasten laguntzen diena. Sen horrekin batera, jakin-mina sortzen zaie. Baina, askotan, egokia dena ez egitearen beldurrak, hots, arauak hausteari garatzen den beldurrak, sen hori mugatzen du. Ondorioz, helduen mesedetara eraikitako arauak inposatuta, pixkanaka-pixkanaka gure txikitxoek jakin-mina itzaltzen goaz, helduok esaten diegulako zer egin behar den eta zer ez, haiei, hau behatzeko aukera eman gabe.

Hau guztiak, ez du esan nahi, arauak ezartzea gaizki dagoenik, baizik eta, haurren ongizatea eta ahotsa ipini behar direla erdigunean, hauek eraikitzerakoan. Hau guztiaz gaindi ere, komenigarria litzateke haurrekin batera haien beharren inguruan hitz egitea, modu honetan eraikiz, benetan elkarbizitza helburu duten arauak. Hala ere, ulertu behar da, noizbehinka arauak apurtzea ondo dagoela eta bihurrikieriek haurrekin partekatzen ditugun espazioei bizitza ematen diotela. Ondo pasa eta (noizbehinka) bihurriak izan!

SLIME



ZER DA?


Material moldagarri eta jostagarria da, eta ez da kutsagarria. Urrats erraz batzuk jarraituta, etxean bertan egin ahalko dugu.

OSAGAIK:

Katilu-erdi bat kola txuri
Katilukada almidoi likido
Katilu bat ur
Elikagaien koloratzailea


JARRAITU BEHARREKO URRATSAK:

1. Ontzi batean, nahastu ura eta kola.
2. Elikagaien koloratzailea gehitu.
3. Bota almidoi likidoa eta ikusiko duzu slimea testura hartzen hasten dela.
4. Eskuekin oratu, gogortuta egoteari utzi eta loditasuna aldatzen duela ikusi arte.




Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia. Esaera zahar bat agertuko zaizu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA




Handienetik txikienera



Ordene itzazu eltzeitsu hauek handienetik txikienera, 1etik 8ra zenbakituz.


Ezetz asma!



Azpiko praktatan harrapatu dugun txerri dotore hau arra da. Txerri arrak izendatzeko hitz zehatzak ditu euskarak, ba al zenekien? Honoko zazpi hauen artetik hiruk, esaterako, horixe bera esan nahi dute. Ea asmatzen duzun zeintzuk diren.

- ORDOTSA
- ARLOTEA
- KUIA
- AKETZA
- KOSKABILOA
- APOTEA
- MIZPIRA

Hiru txerri txoak



SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura

Daniel Schwen

Naroa Barinaga

JAIOTERRIA
BEOTEGI (AIARA)

BIDAIA
INTI IBILBIDEA

BIDAIAREN XEDEA
YUCATAN PENINTSULA ETA KULTURA MAIA
ESPEDIZIO BATEN BIDEZ EZAGUTZEA.



YUCATAN



DESKRIBAPENA

Yucatán penintsula Mexikoko hego-ekialdean dago eta Karibe itsasoa eta Mexikoko golkoa banatzen ditu eta Erdialdeko Amerika eta Ipar Amerikaren arteko mugan dago. Penintsularen jatorrizko izena ma ya 'ab da, maien hizkuntzan 'gutxi batzuk' esan nahi du. Mexikoko hiru estatuk osatzen dute: Yucatan, Quintana Roo eta Campeche.

AZALERA

181.000 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

2.320.898 biztanle.

HIZKUNTZAK

Yucatan maia.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

“Piramidez inguratuta oihana eta fauna ikustea izugarria izan da”

Zer da INTI ibilbidea?

Ketzal ibilbidean inspiratuta dago, antolatzaileek bertan ezagutu zuten elkar eta helburua ez da turismoa egitea, bisitatzen diren lekuetako pertsonak eta kultura ezagutzea baizik. Miguel de la Quadra hil zenean Ketzal ibilbidea amaitu zen eta INTI ibilbidearekin bere bidea jarraitu nahi dute. Gaur egun 150 pertsonak hartzen dute parte, antolakuntzako kideak, intendentziakoak, medikuak eta abar kontuan hartuta.

Zein da ibilbidearen helburua?

Unibertsitate ibiltari bat bezalakoa da. Bisitatu ditugun lekuetako kultura, lekuaren historia, geografia... ikasi ditugu, eta elkar ezagutzen sakondu. Birziklapena oso kontuan izaten genuen, eta lekuak aurkitzen genituen

baino garbiago uzten genituen. Hartu genituen hegazkin eta autobusekin sortutako CO2 aztarna ezabatzeke zuhaitz batzuk landatu genituen.

Cancuneko plaza batean elkar hartu ginen mundu osoko pertsona ezberdinak eta hortik Valladolidera joan ginen eta gero Puuc oihanera. Bertan Tabi etxaldean egon ginen lauzpabost egunez. Gero Campechen, Calakmul, Tekax, Mali, Mayapan... Yucatan penintsula nahiko sakonean ezagutu genuen.

Zein izan da zuen egunerokoa?

Goizeko hiruretan esnatzen ginen, eguzkiagatik. Dena jaso eta ibiltzen hasten ginen. Sei-zazpi kilometroren ostean gosaltzen genuen eta berriz jarraitzen genuen ibilbidearekin. Egunean 26 edo 16

kilometro inguru ibiltzen ginen. Hirurak aldera iristen ginen helmugara, bazkaldu eta ekintza desberdinak egiten genituen. Bidean ere toki desberdinak bisitatzen genituen, piramideak eta antzinako herriak, adibidez. Piramidez inguratuta oihana eta fauna ikustea izugarria izan da.

Nolako izan da harremana oihanarekin eta animaliekin?

Ez dakit zenbat tarantula ikusi nituen eta bat motxilan ere sartu zitzaidan. Iguanak, tximinoak, kaimanak, txoriak, martutxa bat, buztan zuridun oreina, azeri bat, saguzar asko... eta gauez dena armiarmaz josita zegoen.

Bertako komunitateekin harremana izan zenuten?

Bai, Kan Sakaben zorte handia izan genuen. Bertako dantzak eza-

gutu genituen, janaria prestatu ziguten, kobazulo bat erakutsi ziguten, eskumuturrekoak egiten ikasi genuen, maia klaseak eman zizkiguten, tortillak egiten ikasi genuen... Haien etxeen ateak zabaldu zizkiguten, denetarik galdeztzeko aukera izan genuen.

Ibilbidearen ostean zer egin zenuen?

Batzuk bidaiatzen jarraitu genuen, baina oso ezberdina izan zen ordutik aurrera. INTI ibilbidea burbuila baten antzekoa izan zen: mugikorrik gabe, beti elkarrekin ibiltzen ginen, lurrean egiten genuen lo, gutxi garbitzen ginen, ez genuen edateko urik... Mugikorrek hartu genituen gure arteko harremanak aldatu ziren.

Entzun elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

